

# GUaiXE.eUS



Martiarena, Mugagabe Trailen txapeldun



Kirolak >> 13

Sakanako Udako Argazki Lehiaketa martxan



Kultura >> 23

## Nekazaritza Politika Baturako 4.030 hektarea aitortuta



Uzta biltzeko makina Iturmendin lanean orain dela bi aste.

>> 17



AHTren kontrako bizikleta martxak Sakana zeharkatu du

>> 8

Irurtzungo, Arbizuko eta Etxarriko eskoletan inbertsioak

>> 7

Ondartxo Museoa bisitatu dute dagoeneko 255 sakan-darrek

>> 17

Soldata igotzeko lanuztea Apoyos Metalicosen

>> 7

Cederna-Garalurrek 34 ekintzaileri laguntza eman die

>> 3



Ingalaterrako Amici abesbatza, gaur, Urdiainen >> 22



Arakilgo abesbatza, ibilbideari omenaldia >> 23

Abuztuaren 3tik 30era oportretan gaude

Irailaren 4ean argitaratuko da hurrengo Guaixea

**GUAIXE.eUS**



# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tell./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



**Euken Goñi Razkin**  
ZORIONAK Sakanako mutikorik politenai denon partes. Ongi pasa zure egunean!



**Miren ZORIONAK** zure lehenengo urtebetetzean sorgintxiki!!! Aitatxo, amatxo eta Aneren partez! Maite zaitugu



**Miren ZORIONAK** printzesita! Aitona eta amonaren partez! Muxu bat!



**ZORIONAK** HARRIET!! Maitia, segi beti alai, zoriontsu, irribartsu... Egun ona pasa. Etxekuek.



**Olatz Oroz** ZORIONAK Olatz!!! Ondo pasa zure egunean. Muxu asko loar, aita eta amaren partez!!!

## Bazkideek deskontua

**Bakarra:**

**4,00€**

**Bazkideak:**

**3,50€**



Elai Alai dantza taldeko dantzariak Itxasperiako zelaian arakildarren aurrean dantzan.



Auzatearekin batera dantzaldia, Bakaikuko plaza gainezka betetzeko aitzakia.



Olatziko kinto gazteenek festetako zapia jaso zuten.



Olaztiarrak suzeria lehertu eta festak hasteko zain.

## Ostiralero SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- Arakilgo abesbatza
- Unanuko San Donati Eguna
- AHTaren kontrako martxa

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Esataria: Maider

**beleixe**

107.3 FM

www.guaixe.eus-en ON LINE



## SAKANA

# Cederna-Garalurrek 34 ekintzaile lagundu ditu lehen sei hilekoan

**Ekintzaile horietako batzuek 14 enpresa sortu dituzte, guztiak banaka edo elkarte irregular gisa**

Cederna-Garalurrek Ekintzailetasuna Laguntzeko Zerbitzua eskaintzen du Sakanan. Aurtengo lehen sei hilabeteetan 23 emakume eta 11 gizon ekintzaile sakandar lagundu ditu. Haietako batzuen egitasmoak gauzatu egin dira eta 14 enpresa sortu dira, denak bakarkako enpresak edo elkarte irregularrak.

Enpresa berriak sortzen laguntzearekin batera, Garalurreko Ekintzailetasuna Laguntzeko Zerbitzua martxan diren enpresak lagundu ditu ere. Haietako hiruk bi urte baino gutxiago daramate lanean eta beste lau enpresek bi urte baino gehiago dituzte.



Cederna-Garalurrek Arbizuko Utzuganen antolatutako ikastaroetako bat. ARTXIBOA

Aldi berean, Garalurrek ekintzailetasuna sustatzeko bi mahai

antolatu ditu urteerdi honetan, bata Arbizun eta bestea Altsasun. Aldi

berean, Arbizuko Utzuganen ekintzaileei eta autonomoei zuzenduta

## 3 tailer

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatzen duen Navarra Enprende Sarearen bitartez Cederna-Garalurrek urte bukaera bitartean 3 tailer antolatu ditu: autoenplegua, lan alternatiba; Esperientzia ekintzaileak lehen pertsonan eta Lanbide Heziketako institutukoendako den The Case tailerra.

ko bi tailer eman ditu Garalurrek. Haietako baten bidez kontabilitate eta zerga bete beharrak zein diren irakatsi zuten eta bestearen bidez, ogasunarekin on-line kudeaketa nola egin ikasi zuten.

## >> Arakil

# Plazaola Turismo Partzuergoak lehendakari berria du

**Lekunberriko Natalia Azkona Mendia aukeratu dute kargurako**

Arakilgo Udala kide duen Plazaola Turismo Partzuergoak ostegunean legegintzaldiko aurreneko batzarra egin zuen. Lekunberriko Plazaola geltokian hainbat

bazkide publiko eta pribatu elkar-tu ziren. Lehendakari izateko bi hautagai aurkeztu ziren: Jose Angel Iturralde Bildarraz, Imozko alkatea, eta orain arte lehendakari izandakoa eta Natalia Azkona Mendia, Lekunberriko zinegotzia. Biek euren lan propo-

samena aurkeztu zuten batzarra-rean aurrean eta ondoren bozketan egin zen. Alde txikiaz Azkona izendatu zuten lehendakari. Batzar berean 2014ko kontuen itxiera, aurrekontuak, kuotak eta aurtengo kudeaketa plana onartu zituzten.



Partzuergoko kideen bileran lehendakari aukeratu zuten Azkona. UTZITAKOA

## SAKANA



Izurdiagako tren geltoki zaharrean soldadu naziak ageri diren filmeko unea.

# Urbasa-Andia Zinema Ibilbidean

**Sakana eta inguruak askotan zinema plato bihurtu izan dira**

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Departamentuak Zinemaren Ibilbideak prestatu ditu. Ibiltariak 23 pelikula filmatu ziren 13 tokitan barne-

ratzen ditu Zinemaren Ibilbideak. Toki bakoitzean kartel bat jarri da eta telefono mugikorre-ra deskargatu daitekeen aplikazio baten bidez toki bakoitzean filmatutako lanen inguruko informazioa eta irudiak ikuste-

ko aukera dago. Horien artean dago Urbasa-Andia Natur Parkea zeinetan *Cromwell* (1970); *Patton* (1970) eta *Tasio* (1984) filmatu diren. Departamentuak turismo produktu hori osatzen jarraitzeko asmoa azaldu du.



Escalofrio filmako unea bat.

## Sakana, platoa

Filma	Zuzendaria	Urtea	Non filmatu zen
Amaya	Luis Marquina	1952	Urbasa
Orgullo y pasión	Stanley Kramer	1957	Urbasa
Diez fusiles te esperan	Jose Luis Saenz de Heredia	1959	Iturmendi
La batalla de las Ardenas	Ken Annakin	1965	Urbasa
La batalla de Inglaterra	Guy Hamilton	1969	Izurdiagako tren geltokia
Cromwell	Ken Hughes	1970	Urbasa
Patton	Franklin J. Schaffner	1970	Urbasa
Robin y Marian	Richard Lester	1976	Urbasa
Tasio	Montxo Armendariz	1984	Urbasa
Tengo una casa	Mónica Laguna	1996	Urbasa
Escalofrio	Isidro Ortiz	2007	Iñigo Aritza ikastola
Eutsi!	Alberto Gorritebenea	2007	Lizarragako portua
Biñifitful	Gonzalez Inarritu	2009	Berriain
Bi anai	Imanol Rayo	2011	Urbasa



Zoila Berastegi

astekoa

## Bidaia

Udako bero giroak gorputzak izerdiarazten dituen honetan, asko dira arropak txukun tolestu eta maletak egiten dituztenak, pasaporte ondo eguneratua dutela ziurtatu ondoren. Muda, nezeserra, arratsen batean hozten duenerako jertsetxo bat, eguzkitako krema, toaila, lagun batek aholkatutako liburua... ipurdia gainean jarrita ere zailtasunez ixten den kremailearen erresis-

tentzia gainditu eta eskuartearen poltsa hartuta, askok dute beren etxeko zerraila bi-hiru giltzabuelta izten aste bat, biederiturako. Hori bai, bizilagun edo senideren bati landareak zenbat egunetik ureztatu eta katuaren jana non dagoen ondo azaldu ondoren. Eta bileteak? Ah, hemen! Eta argazki makina? Ah bai, motxila txikian. Kaka zaharra, mobilaren kargadorea gau-

mahaian ahaztu dut...

Horrelakoak dira hasierak. Ondoren bidea. Iraganaren nostalgia galdu ez dutenak kotxez, autobusez edo trenezegingo dutenak. Azken modaren orratzez gidatzen direnak berriz, hegazkinez, txalupaz edo ondo prestatutako furgonetaz.

Helmuga zenbat eta urrutiago egon orduan eta hobe. Exotikoa eta originala behar du izan. Ur

gardeneko ametsetako hondartzak eduki behar ditu. Azalak oharkabean gorritzen diren bitartean koko edo papaia bat jaten delarik. Koktelagauean. Eta udako bidai batean ezin dira "lonely planet" edo "trotamundos" gidetan irakurritako leku garrantzitsuenen parean ateratako argazkiak faltatu. Iristean lagun eta senitartekoei ilusioz erakutsiko zaizkienak, haien zorrigai-

tzerako.

Eta orain galderak: zein herritan egon gara? Nortzuk dira bertakoak? Zein izan da haien historia? Zein doinu du haien ama-hizkuntzak? Zein ohitura dituzte?

Munduko leku askotan egon garela esatea baino zerbait gehiago da bidaiatzea. Eta askotan bidaiatzeko ez da etxetik atera behar.

## hara zer dien

# Adinekoen etika batzordea

2013ko abendutik, Nafarroan, Adinekoen Atentzioaren Arloko Etika Batzordea dugu, estatu mailan lehena. Bere xedea adinekoen errespetu eta duintasuna zaintzea da, horrela, adinekoen ematen zaien giza arretaren kalitatea hobetzeko asmoarekin.

Sor daitezkeen arazo etikoei aurre egiteko lagungarria da, hauek, zorrotz aztertu, egoera ebaluatu eta etikoki, izan daitezkeen aukerarik egokiena hartzen lagundu, ekintza ezberdi-

nak planteatuz. "Zer egin behar nuke? Ongi ari naiz? Zein da aukera egokiena?" eta antzeko galderei erantzuna eman eta erabaki bat hartzen lagun gaitzekete, beti etikaren ikuspuntutik abiatuta.

Komitea organu aholku-emalea da, hausnartzailea, interdisciplinaria, autonomoa eta independentea. Edonork egin dezake kontsulta, bai adinekoen zaintzan lan egiten duen edozein langilek, bai familiak, bai interesa duen

edonork. Bere eginkizuna bost puntutan labur daitezke:

- Adinekoen atentzioaren etika ikuspegiaren sentsibilizazioa landu.

- Etika gatazka baten aurrean erabakitze prozesuan aholkua eman eskatzaileari.

- Egoera edota kasu zehatzei buruzko txosten eta gomendioak eman.

- Gai zehatzei buruzko ekintza protokoloa, jardunbide egokiak edota gomendio agiriak landu

(hau adinekoen zaintzako alorreko langileentzat soilik)

Adinekoen zaintzaren esparruan ikerketa eta etika ikuspegi bultzatu eta sustatu.

Azpimarratu beharra dago ere, egiten diren txostenak ez direla lotesleak, ez dituztela ez salaketa ez erreklamazioen peritajeak egiten eta ez dutela pertsona edo langileen erantzunkizunaren inguruko epairik egiten.

Beraz, gure lanean (egoitzan, osasun etxean, gizarte zerbitzue-

tan adibidez) edo familiakoen zaintzaren egunerokotasunean loaxatzen diguten arazo edo galderaren bat baduzu, ausartu eta beharrezkoa bada komitearengana jo, korapilutatutako egoera hori aska dezazun lagun zaitzaten.

Kontaktuan jartzeko: comiteeticasng@gmail.com edo 699454634, informazio gehio: www.sngg.es

**Gizarte zerbitzuak**

## objektibo tik



### Buztingile gazteak:

Arakilgo egunean ikusi genituen lanean. Mota guztietako ontziak egiten ikasi zuten. Agian baita lanpara miragarriak ere. Ez dakigu haietatik geinurik aterako zen eta nahi beste desira eskaini ote zien txikiel.



### Mank-era hots egin halakoeta:

Tamaina handiko trasteren bat etxean dugunean, koltxoia esaterako, eta kendu egin nahi dugunean, ez utzi kalean. Sakanako Mankomunitatera hots egin eta haren bidez Emausko Traperok trasteak jasotzera pasako dira. Bide batez, bigarren erabilera ematen saiatuko dira.

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
**MAKETATZAILA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILEA:** Patxi Flores  
**ARGITARATZAILA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**BAZKIDEAK** 

**Mank**  
 s a k a n a

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**OLAZTIKO BANDERENGATIK HELEGITEA:**  
Ostiraleko txupinazioan, kultur etxean, herriko eta Nafarroako banderak eta ikurrina zeuden. CarmenAlba gobernu ordezkaria-

ren arabera Nafarroako Ikurren Legea urratu zen Espainiako bandera ez jartzean eta haren ordez ikurrina zegoelako.

# sakanerria >>

## SAKANA

# Hondakinei buruzko uda-ikastarorako izen ematea zabalik dago

**Ekonomia zirkularraren sozio-ekonomia eta ingurumen aukerak hondakinen kudeaketari eta materia organikoari aplikatuta. Horixe da Altsasuk irailaren 8an eta 9an hartuko duen uda ikastaroa. 15 orduko iraupena du. Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) antolatu du eta Sakanako Mankomunitateak finantzatu.**

Uda-ikastaroaren bidez Italiako, Kataluniako, Galiziako eta Nafarroako hondakin kudeaketa esperientziak ezagutuko dira. Haien garapena, arrakastarako gakoak eta ingurumenean, gizartean eta ekonomian izan duten eragina aztertuko dute.

NUPeko nekazal ekoizpeneko irakasle Natxo Irigoien Iriartek zuzenduko du ikastaroa. Haren bidez hiri hondakinak kudeatzeko hainbat esperientzia ezagutuko dira. Horrekin batera, hondakinen kudeaketak eskaintzen dituen ingurumen eta sozio-ekonomia aukerak aztertuko dira ikastaroan. Azkenik, sinergia positiboak garatzeko, hondakinen kudeaketarako prestakuntza berezitu baten beharra balo-



Hondakinen kudeaketa eskola-tailerreko kideak ere NUPen Altsasuko uda-ikastarora joanen dira.

ratuko da.

Izan ere, ikastaroa antolatu duten erakundeek gogorarazi

dutenez, "Europako Batasunak ekonomia zirkularrari eta lehengaien berreskurapenerako jarri-

tako asmo handiko helburuek ekimen sozio-ekonomiko eraginkor, justu eta solidarioeiekiteko auke-

### Izen ematea

Interesatuak cursosdeverano@navarra.es-eposta helbidera mezua idatzi beharko dute. Izen-abizenak, nortasunagiria eta ikastaroaren izena jakinarazi behar ditu. Horrekin batera, bazkaltzera geldituko den edo ez. Langabeek bere egoeraren berri ematen duen ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute. Izen emateak 30 euro balio du. Sakanako langabetuendako dohainik izan da. Unibertsitateko ikasleek aukera askeko kreditu bat jasoko lukete egitarauaren %90era joanez gero.

### Nori zuzendua?

Toki erakundeetako arduradun eta teknikoei, baita eskualde mailako ingurumen, enplegu eta gizarte gaietakoetarako ere; ekonomia dinamizatzaileak; lanaren bidez gizarte barneratzean aritzen diren enpresendako eta langabetuendako.

rez betetako eszenatoki berria sortzen dute".



# Txartel freskagarriak badu hirugarren saritua

Azken astean BeleixeGuaixe txartela erabili duten 71 pertsonen artean sari ederra zozketatu genuen atzo: Altsasuko Iru bide jatetxean bi lagunendako bazkaria, Etxarriko Lizardi estetika zentroan aurpegiko lifting-a eta Urdiaingo Errotainen 2 lagunendako zaldi ibilaldiak. Guztia Jose Mari Morcillorendako izan da, erosketa egin ondoren BeleixeGuaixe txartela erakutsi eta zozketan parte hartzeko papera beteagatik.

Txartel Freskagarria kanpai-

na horrela akaberara iritsi da. Azken hiru asteetan BeleixeGuaixe txartelarenerabilera eta, beraz, Sakanako establezimenduetan erosketak egitera animatzeko garatu da kanpaina. Aurreko bi asteetan Peio Astiz eta Yolanda Fernandez de Garaialde izan dira saritua.

### Helburu bikoitza

1.550 pertsonak dute BeleixeGuaixe txartela. Bierrik fundazioak bi helbururekin sustatzen du txartela. Alde batetik, Saka-

### Txartela eskuratzeko

948 564 275 eta 948 562 107 telefono zenbakietara edo [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) atarian sartu daiteke

nako establezimenduetan erosketak egitea bulkatzeko. Merkataritza eta ostalaritza establezimenduek Sakanari bizia ematen diote eta sakandarren arteko harremanak sustatzeko balio

dute. Beraz, BeleixeGuaixe txartelak abantailak eskaintzen duten 80 establezimendu baino gehiagotan erosketa eginez gero deskontuak eta abantailak lortuko dituzte.

Txartela eskuratzeko pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu behar ditu. Eta horrekin bigarren helburua lortzen da: Bierrik fundazioak sustatutako Guaixe astekaria, Beleixe Irratia (FM 107,3) eta [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) euskarazko komunikabideak finantzatzea.



Ongi pasa festetan!

**HORTZ KLINIKA Etxarri**

Eguerdietan zabalik

948 460 315  
Kale Nagusia 27  
Etxarri Aranatz

**Lizardi Estetika zentroa**

Ongi pasa festetan!

**Amaia Benjumea**

649 444 018  
Nagusia 12, 1.B · Etxarri Aranatz

**ilaia**

ilapaindegia

948 56 70 71  
ilaia26@hotmail.com

Ongi paSa feSteTaN!

**TRASKIL**

MODA DENDA

**UDAZKEN-NEGU DENBORALDIA**

ETXARRI ARANATZ



## » Arakil

## Arakildarrak elkarrekin euren egunean



Arakildar txikiak zapia jaso zuten larunbateko ospakizunean.

Santiago egunez, larunbatean, arakildarrek ibarreko festa ospatu zuten. Lehenik Itxasperriko ermita erromanikoaren inguruan elkartu ziren. Aralarko aingerua buru zela, Mikel Garziandia apai-zak meza eman zuen. Haren ondoren omenaldien txanda izan zen. Lehenik, joan den urtean jaiotako hurrei zapia jarri zieten udaleko kideek. Zortzi izan ziren Itxasperrin (hiru faltatu ziren): David Anrango Santillan (Etxarren); Bruno Arraiza Rodrigues (Ihbar); María eta Migel Artieda Perra (Izurdiaga); Nagore Auza Barranco (Etxeberri); Lander Iribarren Solano (Etxarren); Leire Lazkoz Etxarri (Egiarreta) eta

Luken Zabaleta Santesteban (Etxarren). Arakilgo abesbatza izan zen eguneko beste omendua.

Itxasperriko ermitan elkartu zirenek Uharteko Arakilgo erraldoiak eta Lakuntzako Elai Alai taldekoak dantzan ikusteko aukera izan zuten. Artisau azokatxikia ere izan zen ermita inguruan eta haie-tako batean hurrek buztingintzan trebatzeko aukera izan zuten. Guztia borobiltzeko auzatea izan zuten Itxasperriren abaroen. Hango despeditu ondoren ospakizuna Etxarrenera lekualdatuz. 200 pertsona elkartu ziren bazkaltzera. Arakilgo eguneko ospakizunak ordu txikiak arte luzatu ziren. Informazio gehiago 23. orrian.

## » Iturmendi

## Eskolarako bidea egiten

Joan den irailean Iturmendiko hurrek eskola berria mustu zuten. Eta ikasturte berria baino lehen eskolara joateko bidexka mustuko dute. Eskola berrira joateko Bakaikura daraman espalorik gabeko bidea hartu beharra zuten ikasleek. Iturmendiko Udalak hurren segurtasuna kontuan

izanda eskolarako bide zurrigo bat egin du. Frontoiko ezker partaren atzetik abiatu eta elizaren atzetik pasatuta, eskolara darama bideak. Baita aurretik aipatutako errepidera ere. 3 metroko zabale-ra du bideak, hirigintza planaren arabera etorkizunean kale bihurtuko dena.



Errepidetik eskolarako bidea egiteko lanak.

## » SAKANA

## Mank-ek hondakin teknikaria izanen du

Joan den ostegunean egindako batzarrean Sakanako Mankomunitateak plantilla organikoan aldaketa egitea erabaki zuen. Mank-ek hondakin teknikari lanpostua sortu-

ko du eta hark hondakin enalor guztia kudeatuko du. Oposizio deialdia aurten egiten du zurrerik. Bestalde, batzar berean Mank-ek 50 edukiontzia erosteko 15.000 euro bideratzea erabaki zuen. Azken hilabeteetan erre diren edukiontzia ordezkatzeko erabiliko dira.

## » Etxarri Aranatz

## Udalak kultur koordinatzaileak kontratatzeke lan poltsa sortuko du

Etxarri Aranatzko Udalak kultur koordinatzaileak kontratatzeke lan poltsa sortuko duela iragarri du. Haren bidez, etorkizunean, behar-arabera, behin behineko kontratazioak egin nahi ditu udalak. Interesatuek diplomatura edo lizentziatura izan behar dute eta euskara jakin behar dute, besteak beste. Interesatuek euren eskarera, nortasun agiria eta meritua udalarekin aurkez ditzakete. Irailaren 18an despedituko da epea. Euskara maila ziurtatzerik ez dutenak proba irailaren 23an izanen da eta azterketa teoriko praktikoa, berriz, hil horren 23an.

## » BESTE DEIALDIA

Arduradun eta zerbitzu anitzetako aldi baterako lanpostu baterako lehiaketa oposizio deialdia egin du Etxarri Aranatzko Udalak. Lanpostu hori behin-behinean sortuko du udalak eta, etorkizunean, behin betiko kontratazioa egingen du. Deialdiaren berri argitaratu zuen astelehenean Nafarroako Aldizkari Ofizialak. Beraz, deialdian interesa dutenek 30 egun dituzte udalarekin izena emateko.

## » Etxarri Aranatz

## Udalak dozena bat batzorde ditu



Etxarri Aranatzko Udalak 12 batzorde osatzea erabaki du. Haietako hiru buru alkatea bera, Eneka Maiz Ulaiar izanen da: hirigintza, ekonomia eta komunikazioa. Euskara eta hezkuntza batzordeen arduradun izanenda Joxe Aldasoro Jauregi. Basogintza Aitor Karasatorre Muguruza arduratuko da. Silvia Marañon Chasco aukera berdintasun batzordearen buru da. Azokagintza eta merkataritza gaiez arduratuko da Begoña Goikoetxea Zabaleta. Kultur batzordearen buru Lur Larraza Lopez izanen da eta kirola Aritz Ikobaltzeta Mardaras. Maria Saez de Albeniz Beregaña gizarte zerbitzuen batzordeko buru da eta Herri-lurak eta bideak batzordearen arduradun Aberri Barandalla Fernandino izanen da. Udaleko ardurak banatu ziren osoko bilkuran ez zen PPko zinegotzi bakar bat egon. EH Bildutik adierazi dutenez, "kanpainan urreak eta zilarrak eskaini ondoren, gero benetan ardurak eta lanak hartzeko orduan desagertu egin dira". Bestalde, Etxarri Aranatzko Udalak hiru hilabetetik behin ohiko batzarra egiten du, hiruhilabeteko lehen asteazkenean, 19:00etan.

## » Altsasu



## CaixaBankek Klinikako Lagunen Elkartearen alde egin du

Bankuak bere gizarte ekintzaren bidez 3.000 euro emandizkio Josefina Arregi Klinikako Lagunen Elkarteari. Bankuaren Altsasuko bulegoko zuzendari Javier Pablo Leonek elkarteko presidente Patxi Goikoe-txea Askorberi eman zion diruak. Azken horrek jakinarazi zuenez, klinikaren boluntarioek auzolanean egiten ari diren mantenu lanetara bideratuko dute dohaintza.

## » 400 KIDE

Josefina Arregi Klinikako Lagunen Elkartek bazkide kopuru hori du. Euren diru ekarpenarekin eta lan boluntarioarekin osasun zentroaren funtzionamendua eta gaixoei ahalik eta arreta ematea bermatu nahi dute. Informazio gehiagorako: <http://amigosjosefinaarreguilaguna.blogspot.com.es>

## » Etxarri Aranatz

## Sortuko 35/02 auziko inhabilitazioak "urraketa larria" direla salatu du

AVT eta Dignidad y Justicia en eskariz 35/02 auzian (herriko taberna) zigortutako zortziri Espainiako Auzitegi Gorenak inhabilitazio zigorra zehaztu die. Juan Kruz Aldasoro Jauregi, esaterako, urtebete eta hamar hilabeteko inhabilitazio zigorra da. Tarte horretan ezin izanen du hauteskundeetara hautagai gisa aurkeztu. Sortuko Fernando Barrenaren iritziz, "giza eskubideak bortxatzen dituzte erabakiak, eskubide zibil eta politikoen urraketa larria da". Barrenak esan zuenez, inhabilitazioa 35/02 sumarioan emandako "beste gehiegikeria bat da". Espainiari "konponbiderako eskaintzarik" ez izatea leporatu zion eta "salbuespen egoera guztiak baliogabetu arte" lanean segituko dutela ziurtatu zuen, "ezin dira ideiak inhabilitatu".

## Udalaren web orria .EUS da

Horrekin batera, helbide elektronikoak ere domeinu horretara pasa ditu

Etxarri Aranatzko Udalak jakinarazi du bere web orria .EUS domeinura aldatu duela. Beraz, [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) helbide berri dago udalaren sareko ataria.

**ARTZAI EGUNA-2015**  
2015-08-30

**48. URTEURERNA**

**VUARTE ARAKIL**

**XLVIII URTEURERNA**

**EGUNeko EGITARAUA**

**IDIAZABAL**

Nafarroako Erresuma  
**Nafarroa**  
[www.turismo.navarra.es](http://www.turismo.navarra.es)

FUNDACIÓN CAJANAVARRA

NAFARROAKO TURISMOAREN INTERESGARRIKO FESTA IZENDATUA



» Irurtzun / Aarbizu / Etxarri Aranatz

## Eskeletan birmoldaketa lanak egiteko 14.164,4 euroko inbertsioa

Irurtzongo, Arbizuko eta Etxarri Aranazko udalak uda partean euren herrietako ikastetxe publikoetan birmoldaketa lanak egiten ari dira. Horietara, guztira, 14.164,4 euro bideratu dituzte. Lanak egiteko Hezkuntza Departamentuak 10.414,16 euroko diru-laguntza eman die.

Irurtzongo Udalak Atakondoa eskolako sukaldetan ur ihesak kentzeko iturgintza lanak egiten ditu. 3.850 euroko aurrekontua dutelarik eta haren %80 departamentuak

emandako diru-laguntzaren bidez instaliko du (3.080). Arbizuko eskolan berokuntza instalazioa zuzendaritzako bulegora zabalduko du udalak. Horretarako 1.140,8 euro erabiliko ditu eta laguntza gisa 912,64 jasoko ditu (%80). Etxarri Aranazko Udalak, azkenik, San Donato ikastetxean iragazgaizte lanak egiten ditu (txapen euskarriak jarri, zigilatzea/aireztapena/drainatzea) 9.173,6 euroekin. Departamentutik 6.421,52 euroko diru-laguntza jasoko du (%70).

» Etxarri Aranatz



### Indarkeria matxistarik gabeko festen alde

Udalak adierazpena zabaldu eta plazan informazio gunea jarriko du

Festak direla eta Etxarri Aranazko Udalak indarkeria matxistaren kontrako adierazpena publiko egin du. Udaleko Berdintasun Batzordeko Kitz Mendiolak esan duenez, "indarkeria matxista lehen mailako arazoa da. Ez gaude onartzeko prest eta ezin gara geldirik geratu". Emakumeen erailketak izebergaren punta direla nabarmendu du, baina segituan gaztigatu du "indarkeria matxista emakumeen eguneroko kontua" dela, "gehienetan ezkutuan geratzen dena". Hala ere, ziurtatu du indarkeria matxista ez dela esparru pribatuari dagokion arazoa. "Arazo kolektiboa da eta guztion ardura da indarkeria matxistari aurre egitea". Berdintasun Batzordetik bi lelo zabaldu dituzte festetarako: indarkeria matxistarik ez Etxarriko festetan! Ez ezetz da!

### Aniztasunaren aldeko mezua festen hasiera-hasieratik

Berdinagoa, diskriminazioa praktikatzeko ez duena, errespetuzkoagoa, bihotzez anitzagoa den Etxarri Aranatz eta mundu baten aldeko mezua zabalduko da txupinazioan

Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak migrazio eta migratzaileen inguruko aurreiritzi, estereotipo eta zurrumurruen aurrean aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazioa ez aldarrikatzen duen kanpaina garatzen ari da herrietako festetan. Horri jarraituz, ibarreko beste herrietan bezala, mezu hori zabaltzen duen pankarta zintzilik izanen da udaletxeko balkoian. Irudi bera festetako egitarauan agertzen da. Aldi berean, etxajua piztuko duten futbol taldeko kideak eta mendira joan etorria antolatzen dutenetako batek lelo bera duen kamixetarik jantziko dituzte.

+www.guaixe.eus



### Haur eskolarako janari hornidura kontratatuko dute



Laguntza eta Arbizuko udalak Kattuka haur eskolarako janari hornidura kontratatu nahi dute. Heldu den ikasturterako, 11 hilabeterako, kontratua litzateke, gehienez ere hiru urtez luzatu daitekeena. 19.700 euroko (BEZ kanpo) balioa jarri diote udalak deialdiari. Interesatuek euren eskaintzak agorriaren 13ra arte aurkez ditzakete bi udaletako baten idazkaritzan.

» Olatzagutia

## Lan uzteak hasi dituzte Apoyos Metalicosen



Lantegiaren alean kontzentratuta, soldata igoera eskatzen dute langileek.

Lan hitzarmenaren negoziazioan zazpi hilabeteetan ez da aurrerabiderik egon

Apoyos Metalicos enpresako langileak herenegun eta atzo hiru ordu eta erdiko lan uzteak egin zituzten lan txanda bakoitzean. Eta asteartean eta asteazkenean gauza bera egingen dute aldatarik ez badago. Goizeko txandan 10:30etik 14:00etara geldituko dira. Arratsaldekoan, 14:00etatik 17:30era eta, azkenik, gauekoan, 2:30etik 6:00etara. Badira bi hilabete aparteko ordurik ez dutela egiten. Neurri

horiekin Apoyos Metalicosen langileek lan hitzarmenaren negoziazioan zuzendaritzaren jarrera aldarazi nahi dute.

Enpresa Batzordetik (ELAk 3, LABek 1 eta CCOOk 1) jakinarazi digutenez, bi urterako lan hitzarmena nahi dute. Negoziazioan, batez ere, soldata igoera eskatzen ari dira; %1,5eko igoera urte bakoitzeko. Langileen ordezkariak azaldu digutenez, azken bi urteetan soldatak izoztuak izan dituzte. Gaineratu dute presio neurriak hartzen hasi diren arte zuzendaritzak nego-

ziazio mahaira eramaten zuen proposamena ezezta mugitzen. Enpresaren azken eskaintza soldata urteroko %0,85 igoetzea da. Zuzendaritzak argudiatzen du taldeko beste lantegietako langileek baino gehiago kobratzen dutela Olatzagutiakoek. "Hemen bizitza garestiagoa ere bada", erantzuten diote halakoetan langileek, gainontzeko lantegiekin soldata "behetik berdindu" nahi ditela salatuz.

### 100 langile

Horiek dira Apoyos Metalicosen lanean ari direnak. 23 bat behin behineko kontratua dute. Gamesarendako haize erroten oinak edo dorrekegiten dituzte Olatzagutian. Lantegia Windar Renovablesena da, aldi berean, Daniel Alonso talde asturiarrarena dena. Nafarroakoaz aparte, Espainian (3), Brasilen (1) eta Indian (1) ditu lantegiak enpresak. Olatzagutiako Gamesak sortu zuen baina 2008 aldera Asturiasko taldeari salduz, nahiz eta jabetzaren heren bat edo Gamesaren esku egon oraindik.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**Aliprox**

948 576 246  
Larrañeta z/g  
**LAKUNTZA**

**Xapatero**  
taberna

Ongi pasa festetan!

948 460 162 · Etxarri Aranatz

**LEKU ONA**  
taberna

Afaltzeko bokata goxo-goxuek!

Ongi pasa festetan!

JAIK BAI, BORROKA ERE BAI!

**HOSTO**

**GORRI**  
altzariak

altzariak eta kortinak

Zugarreta 7 · Etxarri Aranatz  
948 460 359 · 679 414 731  
www.hostogorri.com



&gt;&gt; Altsasu

# Udalak garbiketa bertikaleko araudia onartu du

**Parte-hartze batzordean gaia aztertu bitartean udalak jarraitu bitarteko irizpideak izanen dira eta ez du ordenantza bat sortzea baztertzen**

Altsasuko Udalak herriko paretak garbi egoteko bost irizpide onartu zituen herenegun. Hala, udal eraikinetan agertzen diren pintadak 60 egun baino lehen tapatuko ditu. Jabeek hala eskatuz gero, Altsasuko Udalak beste eraikinetan egindako pintaketak tapatu egingen ditu. Horrekin batera, udalak zortzi panel jarriko ditu herrian barna, haietan taldeek eta erakundeek euren jardueren berri ematen dituzten kartelak haietan jar ditzaten. Parte Hartze Batzordean erabakiko da panel horiek non jarri eta nola erabili.

Udalak onartutakoaren arabera, paneletatik kanpo jarritako kartelak aste baten buruan kenduko dira. Bestalde, eraikin pribatuetan egiten diren muralak egin aurretik baimenduak izan beharko dira eta etxejabeen komunitatearen baimena izan beharko dute. Bestela, jabeagoak eskatzen badu tapatu egingen dira.

Geroa Baik proposatu zuen araudia gogoraziz legez herrien garbiketa udal eskumena dela. Unai Hualde Iglesiasek esan zuenez, “gure herrian orain arte garbiketa bertikalean egindako lana hobetu daiteke eta, horregatik, azken asteetan herri garbiago eta zainduago bat izateko hainbat neurri hartu dira”. Haien balioa 3.600 eurotan zehaztu zuen. Neurri horiek Altsasuren kanpo irudia



Herenegungo udal bilkura. Hiru zinegotzi faltatu ziren.

hobetu eta altsasuar askoren eskarari erantzuten diotela nabarmendu zuen. Goazen Altsasuko Pedro Jose Arregi Mugikak onartutakoa udalak bere egitea eta bando eta bestelako jakinarazpenak jartzerakoan edonon ez jartzeko eskatu zuen. Baita pasa ondoren kentzeko ere.

EH Bilduk Geroa Bairi mozioa erretiratzea eta Parte Hartze Batzordean gaia lantzea proposatuzion. Alkatetzako taldeak, ordea, argudiatu zuen batzordean erabakia hartu bitartean udalak jarduteko irizpide batzuk behar zituela. Batzordea deituko dutela eta taldeak joatea espero zuela gaineratu zuen. EH Bildu ez beste indarrek araudiaren alde bozkatu zuten. Koalizioak ez zuen bozketan parte hartu.

## Adierazpen askatasunaz

Herri Mugimenduaren mozio bat EH Bilduren bidez iritsi zen udal bilkurara. San Pedro festa dela eta herriko kolektiboek jarritako pankartak kendu zituztela eta adierazpen askatasuna beste behin urrutia izan zela salatu zuten mugimenduek. Pankarta haietan zeuden aldarrikapenak “guztiz herrikoak eta zilegiak” zirela nabarmendu zuten. Haien kontra joz errepresio indarrek Altsasuko aldarriak isilarazi nahi dituztela salatu zuten.

Horregatik, herri mugimendutik udalari gertatutakoaren salaketa egin eta gertaerakiko desadostasuna azaltzea eskatu zitzaion. Aldi berean, geratzen diren muralak eta pintadak ez ezabatzea eskatu zuen. EH Bilduk alde bozkatu zuen eta gainontzeko alderdiek kontra.

Geroa Baik garbiketaren inguruan aurkeztutako mozioarekin lotu zuen herri mugimenduen idatzia: “adierazpen askatasuna ez da mugagabea”. Herri garbia izateko altsasuarrek duten eskubidea eta hura garbi mantentzeko udalaren betebeharrak azpimarratu zituzten. Horregatik, bere mozioan azaldu bezala gauzak arautzearen alde agertuz Geroa Bai. Pedagogia eta hausnarketa eskatu zituen. Beste taldeek antzeko argudioak erabili zituzten ezezkoa emateko.

EH Bilduko eledun Arantza Bengoetxea Intxaustik gogoratu zuen San Pedron 24 ordurako jarri zirela pankartak eta gero kendu egiten direla. “Horrek garbiketarekin ez du zerikusirik”. Eta adierazpen askatasunaren alde egin zuen. Mural eta pintaketan tapa-

## Altsasu

**Otsoportilloko hildakoak identifikatzeko bitarteko eske Otsoportilloko lezean dauden sei altsasuarren hezurdurak atera, haiek identifikatu eta haiei ondoren lur emateko Altsasuko Udalak Nafarroako Gobernuari giza bitartekoak eta bitarteko materialak eskatu dizkio. Lezean Emilio Garcia Izquierdo, Joaquin Lizarraga Martinez de Bujanda, Sabino Lizarraga Barandiaran eta Jose Ubeda Sanchez leudeke. UPNk kontra bozkatu zuen eta gainontzeko guztiak alde.**

tzaren inguruan EH Bildu ez dator bat, udalak ezin zuela erabaki zein zer den zilegi eta zer ez gaineratu zuen. Herrian eztabaida sustatu, pedagogia egin, adierazpiderako bideak eman eta gaia lan mahaian egotea eskatu zuen.

Kritiko azaldu zen pintada, mural eta pankartak zikinkeriarakin nahasten duen joerarekin. Herriaren garbiketarak mutur asko dituen gaia zela azpimarratu zuen, haiek horren alde zeudela gatzigatuz. EH Bildukoak nabarmendu zuen aipatu kolektiboaren mezua hedabideetan ez dutela tokirik eta haiek zabaltzeko bitartekorik ez dutela. Pintaketak eta bestelakoak, “asko urgentziaz eginak”, ezarritako ordena salatzeko eta hausnarketak zabaltzeko eginak direla nabarmendu zuen. +www.guaixe.eus

## SAKANA

# AHTren kontra bizikletan

**Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontrako 3. bizikleta martxa Sakanan zeharkatu zuen herenegun eta atzo**

Larunbatean Castejonek abiatu zuen bizikleta martxa. Mugitu! mugimenduak antolatuta. Haren kide den Julio Villanuevak esan digunez, tropelak Castejon eta Alesbes artean egindako lanak ikusi zituen, “sekulako txikizioa.

Tarte hori bukatuko dute. Espero dezagun horrekin bukatzea Nafarroan egiteko asmoa duten proiektua”. Nafarroako egitasmoaz Villanuevak adierazi digunez, “ikusten ari gara urteen poderioz euren proiektua pikutara joaten ari zaiela. Cortes-Sakana proiektua Castejon-Arrizabalaga artekoan gelditu da. Guztiz zentzugabeak diren

65 km”. Tarte horrek ez iparraldean ez hegoaldean inongo loturarik ez duela gatzigatu digu. Horregatik, AHTren kontrakoek “zentzugabekeria” gelditzea espero dute.

Iruñaren eta Gasteizen arteko AHTko lotura Sakanan barna egingen litzateke. Egitasmo horren inguruan Villanuevak gatzigatu digu “momentuz aparkatuta dute. Adifi ez zaio batere interesatzen, ez du lehentasunezkoa jotzen”. Hark argitu digunez Zaragoza-Cortes eta Iruña-Gasteiz tartean egungo trenbidean hirugarren erraila jarriko lukete.

Mugitu!-ko kidea Nafarroako Gobernu berria eratzeko lortutako akordioarekin “nahiko kritikoa” azaldu da. “Anbiguotasun kalkulatu dago. Ez da inolaz ere esaten lanak geldituko dituztenik. Aldiz, ate bat zabaltzen du, edozein momentutan, agian, PSNrekin bat egin eta Nafarroako korridoreari argi berdea emateko”. AHTren euskal Y-ren lanen aurrekontu erdia oraindik inbertitzeko dagoela eta lanak gelditzeko garaiz



Bizikleta martxak Sakanako herriak zeharkatu du, irudian Altsasu.

daudela uste dute Mugitu!-n.

## Sakanan

Oskiako harratetik sartu zen Mugitu!-k antolatutako martxan Sakanan herenegun. Irurtzango Pikuxarren bazkaltzeko geldialdia egin zuten. Martxako kide batzuek batzarra egin zuten eta beste batzuek Aralarko santutegirako bidea hartu zuten. Lainoetan, 17:00ak aldera, Etxarri Aranatzera abiatu zen. Behin Etxarri merkaturatutako edo alternatiba merkaturari izeneko mahai inguruan parte hartu zuten.

Atzo Etxarri eta Altsasu arteko bidea egin zuen tropel desobeditzaileak. Ohi dutenez, pasatzen diren herrietan AHTren kontrakomezua zabaldu zuten. Altsasura iristean herrian barna itzulia egin eta plazan elkartu ziren, Foruzaingoa gertu zutela. Tropeleko kideek pasatzen diren inguruetako ingurumen gatazkei buruzko informazioa ere jasotzen dute. 3 Mugak Batera plataformako kideek Olatzagutiko porlandegiaren errausteko egitasmoaren zehaztasunak eman dizkiete. Ondoren, bazkaldu eta trenez Arabako bidea hartu du tropelak.





# Udako agenda



## ETXARRI ARANATZ

### Zorri Azoka

**>> Garilaren 31n, ostiralean, 18:00etatik 22:00etara** Etxarri Aranazko plazan. Sakanakobertakoproduktuaketa bertako ekoizleak. Horiek biltzen dira Zorri Azokan. Eta haiekin zuzeneko harremana izateko aukera eskaintzen du. Bertako produktuen kontsumoa bulkatuz ibarreko ekonomia-ri bultzadaxoa eman nahi dio Zorri Azokak. Sakanako nekazariak eta abeltzainak, artisauak, artistak eta beste elkartuko dira, atzera ere, azokan. Azokak eresakandarren eta era-kundeen topagune izan nahi du. Tru-kerako txokoa da horretarako auke-  
ra eskaintzen duen azokako espazioetako bat. Azokasozialak, Zorri Azokak, gainera, bigarren urteurre-  
na du eta hori ospatzeko 19:30ean, pintxo potea eskainiko du.

## FESTAK Etxarren:

**>> Garilak 31, ostirala**  
**19:00etan** Txupinazoa eta jaiak hasten dira!  
**19:15ean** 2014-15an jaiotakoei festetako zapia ematea.  
**19:30ean** Herri Jokoen IV. Txapelketa Mundiala.  
**22:00etan** Herri afaria (Apeztegi berriko Denda, Jauntsarats).  
**00:00etan** Dantzaldia Elebitanekin.

**>> Agorrilak 1, larunbata**  
**11:30ean** Hamarretakoa.  
**12:00etan** Haur jolasak: Puxikaflexia eta aurpegi margotzea.  
**17:00etan** Tramankulu haur jolasak.  
**18:30ean** Txokolate jatea.  
**19:00etan** Hiruko saskiratzeen txapelketa.  
**20:00etatik 21:30era** Dantzaldia Elebitanekin.  
**21:30ean** Bingoa.  
**22:00etan** Zehensuzkoa.  
**22:30ean** Herri afaria (Apeztegi berriko Denda, Jauntsarats).  
**00:00etan** Dantzaldia Elebitanekin.

**>> Agorrilak 2, igandea**  
**11:45ean** Hamarretakoa.  
**12:30ean** Magia ikuskizuna.  
**16:00etatik 20:00etara** Jolas parkea.  
**17:30ean** Pilota partidak.  
**19:30ean** Mexikanak.  
**21:30ean** Bingoa eta zozketak.

**>> Agorrilak 3, astelehena**  
**11:30ean** Hamarretakoa.  
**12:30ean** Munduko IV. Ping Pong Txapelketa.  
**14:30ean** Herri bazkaria (Apeztegi berriko Denda, Jauntsarats).  
**16:00etan** Gomaevako eskulanak eta jolasak.  
**16:30ean** Mus eta brisca txapelketa.  
**00:00etan** Hau pena nik.

## URDIAN

### Amici abesbatza

**>> Garilaren 31n, ostiralean**  
**19:30ean** Urdiaingo elizan. Ingalaterra hegoaldeko abesbatza-ri buruzko informazio gehiago 22 orrian.

## SAKANA

### Euskal Presoak Euskal Herrira!

**>> Garilaren 31n, ostiralean**  
**20:00etan** Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.



## ALTSASU

### Altsasu-Aralar-Altsasu

**>> Agorrilaren 1ean, larunbatean**  
 8:00etan Altsasuko kultur gune pare-tik. 110 km. Zikloturista taldea.

## UHARTE ARAKIL

### Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologia aztarnategira

**>> Agorrilaren 1ean, larunbatean**  
**11:00etan** Uharte Arakilgo Zamar-tzen. Aurretik izena eman: info@adi-tu.info



**BILTOKI**  
 TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
 Bokatak  
 Plater konbinatuak  
 Karta

Astelehenetik ostiralera  
**Eguneko menua 8,25€**

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

Ondo pasa udako festetan!

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
 EDARI BANATZAILEA

Egizu topa!

Geltoki auzoa 11 • Altsasu  
 948 467 317 • 696 979 279  
 hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Ogiaren artisauak

**PORTUKO** okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
 ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153





## FESTAK Etxarri Aranatz:

### >> Agorrilak 1, launbeta. Etxia!

**Egune**  
**9:30ean** Ehiza ibilbidea. Muxar ehiztari taldea.  
**12:00etan** 2014an jaiotako haurrei zapi-banaketa eta kartel lehiaketako irabazleen sari-banaketa.  
**13:00etan** Festa hasierako suziria. Ondoren, kalejira Etxarri Aranazko buruhandiek, Uhartea Arakilgo erraldoi eta buruhandien konpartsarekin, Etxarri Aranazko gaiteroekin eta Turrutxiki txarangarekin.  
**14:00etan** Turrutxiki txarangaren kontzertua, plazan.  
**17:30ean** Pilota eta pala partidak. Gure Pilota elkarte.  
**17:30ean** Kalejira Turrutxiki txarangarekin.  
**18:30ean** Etorrizuna dantza taldearen ikuskizuna, plazan.  
**20:00etan** Preso eta iheslariak etxean nahi ditugu manifestazioa. Etxerat.  
**20:00etan** Salbea, Andra Mari baselizan. Etxarri Aranazko eta parrokiako abesbatzak kantaturik.  
**20:30ean** Auzatea: Hartzabal, Etxe Azpi, Udaberri, Larrañeta eta Karrisestu elkarteek prestatuta.  
**20:30etik 22:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:30etik 4:30era** Gaupasa Tximeleta taldearekin.

Goizean zehar estalopean Mendira joan etorriaren eta futbol taldearen argazki erakusketa

### >> Agorrilak 2, iyendie. Arañaz Elkartien egune

**10:30ean** Dianak Etxarri Aranazko gaiteroekin.  
**11:30ean** Auzatea, Gure Etxe elkarteak prestatua.  
**12:00etan** Meza nagusia.  
**12:30ean** Herri kirolak: aizkora apustuak eta harri jasotzaileak. Sakanako Aizkora Eskolako ikasleen erakustaldia.

**13:00etan** Etxarriko buruhandiak.  
**13:30ean** Musika ikuskizuna: Disei Opera Band.  
**18:00etik 21:00etara** Euskal Herriko artisauen azoka, plazan.  
**19:00etan** Kale antzerkia: Zoozoom, Markeliñe konpainia.  
**20:30etik 22:00era** Dantzaldia Drindots taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:00etik 3:00etara** Dantzaldia Drindots taldearekin.

### >> Agorrilak 3, astelehena. Kuadrilla egune

**10:30ean** Dianak Turrutxiki txarangarekin.  
**11:30ean** Auzatea Etxe Azpi elkarteak prestatuta.  
**12:00etan** Bordetxe abere zirkoa.  
**13:00etan** Etxarriko buruhandiak eta japoniar bonbak.  
**13:30ean** Bertso-saioa plazan: Maialen Lujanbio, Freddi Paia, Uxue Alberdi eta Eneko Lazkoz. Gai jartzailea: Maider Ansa.  
**18:00etan** A tu bola kale antzerkia.  
**19:00etan** Kalejira, Turrutxiki txarangarekin.  
**20:00etik 22:00etara** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:00etik 3:00etara** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

### >> Agorrilak 4, asteartea. Haurren egune

**11:30ean** Auzatea, Udaberri elkarteak prestatuta.  
**11:30etik 13:00etara** Jolas-parkea haurrendako. Japoniar bonbak.  
**13:00etan** Etxarriko buruhandiak.  
**13:00etan** Bitartean folk musika ikuskizuna, plazan.  
**17:00etan** Futbol-plaza txapelketa, kale nagusian.  
**17:00etik 19:00etara** Jolas parkea haurrendako.  
**19:00etan** XXII. Play back txapelketa, plazan.  
**20:00etik 22:00etara** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:00etik 3:00etara** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

### >> Agorrilak 5, astiazkena. Aittun-amiñan egune

**11:30ean** Neska gazteen pala partidak.

Gure Pilota elkarte.  
**11:30ean** Auzatea, Hartzabal elkarteak prestatuta.  
**11:30etik 13:00etara** Tailerrak laguntza txakurrekin, Bocalan Biak Baten eskutik.  
**12:00etan** Meza.  
**13:00etan** Puro Relajo mariatxien emanaldia, plazan.  
**14:30ean** Aittun-amiñan bazkaria.  
**16:00etan** Aitor soinu-jolea, aittun-amiñan bazkarian.  
**17:00etan** XXVIII. Iruñerriko itzulia, jubilen txirindulari lasterketa. Aralar txirindulari taldea.  
**17:00etik 20:00etara** Jolas birziklatuak, haurrendako.  
**20:00etik 22:00etara** Dantzaldia Gaubela taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:00etik 3:00etara** Dantzaldia Gaubela taldearekin.

### >> Agorrilak 6, ostegune. Kintuen eta parte hartze egune

**10:30ean** Dianak Turrutxiki txarangarekin. Kintoak etxe dirua eskatuko dute.  
**11:30ean** Auzatea, urteko kintoek prestatuta.  
**11:30ean** Haurrendako jolas ibilbidea, plazan. Guraso elkarteak.  
**13:00etan** Etxarriko buruhandiak.  
**13:00etan** Etxarri Aranazko abesbatzaren kontzertua, plazan.  
**17:00etan** Kalejira, Turrutxiki txarangarekin.  
**18:00etan** Etxarriko bertso-eskolako emanaldia.  
**19:30ean** Jinkana, kintoek antolatuta.  
**21:00etik 22:00etara** Dj JotaTXO.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**23:00etan** Kontzertuak: Altxatu eta Etxarriko musikariak. Ondoren Dj JotaTXO.

## HERRI MUGIMENDUBAN EGITARAUE

### >> Agorrilak 1, launbeta. Euskal preso eta errepresaliatu politiko egune

**10:30etik 12:30era** Etxarriko Gazte Asanbladaren futbito txapelketaren finala.  
**13:00etan** Denok txupinazua.  
**14:30ean** Bazkaie eta omenaldiye, plazan.  
**20:00etan** Manife plazatik: preso eta iheslariak etxean nahi ditugu!

### >> Agorrilak 2, iyendie

**20:30ean** Kostillada gaztetxien. Afal ondoren, karpan: Anje Duhalde eta Maider Ansa.

### >> Agorrilak 3, astelehena. Kuadrilen egune

**14:30ean** Bazkaye karpan.  
**18:00etan** Kotel festa, gaztetxien.  
**19:00etan** Kuadrillen igoera gaztetxien. Ondoren, Emakumien Mundu Martxan photocalla, plazan. Bilgune Feminista.  
**Afal ondoren**, karpan sorpresa.

### >> Agorrilak 4, asteartea

**22:00etan** Karpan, bertso afaye: Andoni Egaña eta Jon Maia.

### >> Agorrilak 5, astiazkena

**14:30ean** Gazte bazkaye karpan. Afal ondoren, karpan: D'Capricho.  
**23:00etan** Kontzertubek gaztetxien: Egurra ta kitto, Frenetik.  
 Ondoren, Dj Bull gazte txoznan.

### >> Agorrilak 6, ostegune

**Afal ondoren**, karpan: Dispersiyuan kontrako erronkan bideo emanaldiye.

### >> Agorrilak 7, ostiela. Inutilan egune

**10:00etan** Burrunbada.  
**11:00etan** Sardin jana, plazan.  
**14:30ean** Bazkaye.  
**17:00etan** Inutilen desfilie.  
**19:30ean** Pregonan irakurketa.  
**20:00etan** Kontzertua plazan. Etxean nahi ditugu.  
**20:30etik aurrera** musika plazan.

## IRAÑETA

### Erromeria aldia Aralarko santutegian despedituko da >> Agorrilaren 2an, igandean

#### 12:30ean

Aurreko hiru igandeetan herriko hiru ermitak (San Gregorio eta San Migel Berri ermitak eta Basabeko

borda) bisitatu eta haietan meza egin ondoren, irintarrek erromeria zikloari Aralarko santutegian emanen diote despedida. Egurdian meza izanen dute eta, ondoren, hala nahi dutenek bazkaltzera geldituko da.

## ALTSASU

### Collarada

#### >> Agorrilaren 2an, igandean

Altsasuko Mendigoizaleak taldea.

## ETXARRI ARANATZ

### XI. 3x3 Futbol-Plaza Txapelketa

#### >> Agorrilak 4, asteartea

**17:00etan** Etxarri Aranazko Kale Nagusian.

Osasuna fundazioak antolatu du XI. 3x3 Futbol-Plaza. 8-12 urte arteko neska-mutikoek har dezakete parte. Txapelketa Nafarroako 12 herritan jokatu da. Sakan-soilik Etxarri Aranatzeko jokatu da, festen barruan, asteartean.

Hiru kidez osatutako taldeak lehiatuko dira futbol txapelketa honetan. Izena ematea egunean bertan egingo da. Irabazleak agorrilaren 30ean Iruñeko La Morean goizetik aurrera jokatu eta final handian hartuko dute parte.

## IRURTZUN

### Udako zinema: Díos mío ¿Pero qué te hemos hecho?

#### >> Agorrilaren 5ean, asteazkenean

**22:00etan** Irurtzango Foru plaza.

## ALTSASU

### Gaueko pulunpa

#### >> Agorrilaren 6an, ostegunean

#### 20:00etatik aurrera

Dantzaleku igerilekuan 12 urtetik gorako gazteendako eskaintza egin du Intxostiapunta gazte guneak udaleko Kirol Zerbitzuarekin batera. Gazteek agorriko ostegunero jarduera bat izanen dute igerilekuan. 20:00etatik 21:00etara ogitartekoa eta freskagarria 3 eurotan eskuratzeko aukera izanen dute. Igerilekuan bainuarekin batera jarduerak izanen dira: agorrilaren 6an, aquagym; agorrilaren 13an, jokoak; agorrilaren 20an, aquadance eta agorrilaren 27an, gynnkana.



## SAKANA

Euskal Presoak  
Euskal Herrira!

>> Agorrilaren 7an,  
ostiralean

20:00etan Lakuntzako, Arbizuko  
eta Etxarri Aranazko plazetan, elkar-  
rretaratzeak.

## ALTSASU

Altsasu-Zaldibia-  
Altsasu

>> Agorrilaren 8an,  
larunbatean,

8:00etan Altsasuko kultur gune  
paretik. 125 km. Zikloturista taldea.

FESTAK  
Zuhatu:

>> Agorrilak 8, larunbata  
12:00etan Suziria.  
12:30ean Buruhandiak.



14:30ean Herri bazkaria (errekiak).  
17:30ean Ikuskizuna.  
19:00etan Txokolatada.  
19:30ean Dantzaldia.  
22:00etan Herri afaria.  
00:00etan Dantzaldia.

## UHARTE ARAKIL

Bisita gidatuak  
Zamartzeko  
arkeologia  
aztarnategira

>> Agorrilaren 8an,  
larunbatean

11:00etan Uharthe Arakilgo Zamar-  
tzen. Aurretik izena eman: info@adi-  
tu.info

## UHARTE ARAKIL

Beriango ermita  
helburu

>> Agorrilak 9, igandea

Beriain mendiko ermitak San Dona-  
to eta San Kaietanosainduak hartzen  
ditu. Bien eguna agorrilaren 7an da  
eta uharterrek, aspalditik, egun  
horrekin mendi gainera erromerian  
igotzen ziren, bi sainduen erlikiak  
herrian izanda ere. Gaur egun 7tik  
gertuen dagoen igandean ospatzen  
da elizkizuna eta Beriaingaineko ermi-  
tak uharterrez aparte, makina bat  
sakandar eta olloarandar elkartuko  
ditu. Meza 11:00etan hasiko da. Eliz-

kizuna egin eta gero Uharthe Arakil-  
go Udalak otamena eskainiko du  
(gazta, txorizoa, urdaia, ardoa...). Hura  
osatzeko olloibardarrek kafea eta pas-  
tak eskainiko dituzte.

## UNANU

## San Donati eguna

>> Agorrilaren 9an,  
igandean, Unanun

Makinabat jende Beriain mendira igot-  
zen dela baliatuta, unanuarrek haien-  
dako eta nahi den guztiarendako herri  
bazkaria antolatudute. 15:00etan izan-  
nen da. Ondoren, elkartean dj-ak  
musika jarriko du. Denok bat elkar-  
tea egun osoan taberna moduan  
zabalik egonen da. Informazio gehia-  
go azken orriko elkarrizketan.

## IRURTZUN

Udako zinema:  
Maléfica

>> Agorrilaren 12an,  
asteazkenean

Irurtzongo Foru plazan.

FESTAK  
Dorreo:

>> Agorrilak 13, osteguna.

## Bezpera

20:00etan Festa hasierako suziria.  
20:30etik 22:00etara DJ Julen.  
21:00etan Auzatea.  
1:00etatik 5:00etara: DJ Julen.

>> Agorrilak 14, ostirala

14:30ean Herri bazkaria.  
17:30ean Errolda.  
20:30etik 22:00etara Dantzaldia.  
21:00etan Auzatea.  
1:00etatik 5:00etara Dantzaldia.

>> Agorrilak 15, larunbata.

Ama Birjina eta jubilatuen  
eguna.

13:00etan Meza nagusia.  
14:00etan Hamaiketakoa.  
18:00etan Aizkora apustua.  
20:00etan Txutxin Ibañez.  
21:00etan Sardina eta txistorra jana.  
1:00etan Kontzertua: Zopilotes.

>> Agorrilak 16, igandea.

## Umeen eguna

18:00etan Haurrendako jokoak.  
20:00etatik 22:00etara DJ Julen.  
21:00etan Auzatea.  
00:30ean Mozorro lehiaketa.  
1:00etatik 5:00etara DJ Julen.  
5:00etan Hau pena nik!

**Festa onak pasa!**

**etxia**

**Etxarri Aranazko Udala**  
www.etxarriaranatz.eus

**UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA**

**I ♥ Etxarri Aranazko Udala**

**EZ-ITZA EZA EZ-ETZ**



**ALTSAESU**

**Eguzki behaketa**

>> Agorrilaren 13an, ostegunean

**17:00etatik 19:00etara** Dantza-leku igerilekuan. 12 urtetik gorakoendako doako eskaintza, Intxostiapuntagaztegunek antolatatu duena.

**ALTSASU**

**Gauko pulunpa**

>> Agorrilaren 13an, ostegunean,

**20:00etatik aurrera**

Dantzaleku igerilekuan gazteek bainu hartzeko aukera eta jokoak izanen dituzte. Ogitartekoa eta freskagarria ere eskura dituzte.

**ALTSASU**

**Rumbo Rumba**

>> Agorrilaren 13an, ostegunean

**22:30ean** Altsasuko Haritza tabernan.

Marian Ruiz eta Cesar Sanchez iruindarrek osatzen dute Rumbo Rumba. Altsasura rumba bertsioren kontzertua eskaintzera etorriko dira. Los Chichos, Estopa, Frank Sinatra, El Arrebato, Los Rodriguez, Manolo Escobar, Bordon 4, Melendi, Manzanita eta beste hainbat egilerendoi-oiak aletuko dituzte; umorez eta martxa handiz, publikoak parte hartzeko.



**13:00etan** Ajoarriero txapelketa.  
**15:00etan** Herri bazkari autogestionatua.  
**17:00etan** Tramankulu. Haur jolasak eta txokolatada.  
**19:00etan** Pilota partidak.  
 Haurrak: Arzoz-Cobos / Irujo-Lizarraga  
 Helduak: Ezkurdia / Ongay  
**20:00etan** Dantza DJ Asierrekin. (Umeak mozorrotuta).  
**22:00etan** Zenezuzkoa.  
**24:30ean** Dantza DJ Asierrekin (helduak mozorrotuta).

>> Agorrilak 16, igandea  
**12:00etan** Meza nagusia.  
**13:00etan** Otamena eta rantxerak.  
**17:00etan** "Al final de la playa" ikuskizuna Des Vents Mareés taldearen eskutik.  
**19:00etan** Txiste txapelketa.  
**19:30ean** Musika DJ Asierrekin.  
**22:00etan** Hau pena nik!

**20:30ean** Garabatos taldearen kontzertua.  
**22:00etan** Herri afaria.  
**00:00tan** Gozategiren kontzertua.

>> Agorrilak 15, larunbata  
**12:00etan** Meza Aitziberko basilizan, ondoren auzatea trikitilariet alaituta.  
**12:00etatik 14:00etara** eta **15:30etatik 18:30etara** Puzgarriak Urriztin.  
**14:30ean** Bazkaria Urriztin.  
**20:00-22:00** Dantzaldia Erromeria.comekin.  
**00:00-03:00** Dantzaldia Erromeria.comekin.

Oharra: Bazkal aurretik eta arratsaldez UGAK barra zabalduko du Urriztin.

**SAKANA**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!**

>> Agorrilaren 14an, ostiralean,

**20:00etan** Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**ALTSASU**

**Travellin' Brothers**

**Big Band**

>> Agorrilaren 14an, ostiralean

**21:00etan** Altsasuko Dantzaleku-Usolarrainen.

Joan den urtean Ane Etxegoienek euskal kantuez Usolarrainen gotzartzeko aukera izan zen. Aurten, berriz, rhythm & blues estiloz bustiko gaitu Travellin' Brothers taldeak. Joan den urtean 10 urte bete zituen taldeak. Sei disko eta 600 kontzertu baino gehiago dira haien jardunaren aztarna.

Altsasun haien azken lana, anbizio handieneko proiektua, aurkeztuko dute, Magnolia Route. Chicagotik New Orleanseraino, Nashville, Memphis eta beste makina bat hiri eta soinutan barna igarota doan musika bidaia proposatuko dute. Musika afroamerikar guztian barnako bidaia, denboran hamarkadaz hamarkada egindako bidaia. Beti bezala blues musikatik abiatuta baina mugak klasez eta dotoreziaz igarota.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harreman Departamentuan anto-

latutako Cultur jaialdiko musika programaren barruan dago kontzertua.

**Kideak**

Jon Careaga (ahotsak), Aitor Cañibano (gitarra eta ahotsa), Eneko Cañibano (baxua eta baxu bikoitza), Ander Unzaga (pianoa eta piano elektrikoa), Isi Redondo (bateria), Alaiar Sancho (saxo altua eta ahotsak), Itziar Castrillo (saxo altua), Alfontso Vila (saxo baritonoa), Javi Perez (tronpeta), Alfonso Masach (tronpeta), Carlos Escudero (tronboia), Juanan Diez (tronboia), Juan Carlos Ribelles, (tuba), Estibaliz Ruiz (biolina eta ahotsa) eta Mora Silva (ahotsa).

**ALTSASU**

**Altsasu-Abaltzisketa-Altsasu**

>> Agorrilaren 15ean, larunbatean

**8:00etan** Altsasuko kultur gune paretik. 120 km. Zikloturista taldea.

**FESTAK Satrustegi:**

>> Agorrilak 14, ostirala  
**20:00etan** Txupinazoa. Puzgarriak eta kilikiak.  
**20:30ean** Dantza DJ Asierrekin.  
**22:30ean** Herri afaria.  
**1:00etan** Dantza DJ Asierrekin.  
 >> Agorrilak 15, larunbata  
**12:00etan** Kilikiak eta puzgarriak.

**FESTAK Urdiain:**

**Andramauztuko festak**

>> Agorrilak 14, ostirala  
**12:00etan** Etxajua trikitilariet alaituta.  
**16:00etan** Brixka txapelketa Kaluxan eta mus txapelketa Mareon.  
**17:00etan** Apar festa plazan.  
**18:30ean** UGAK antolatutako futbol txapelketako finala (futbol zelaian). Pintxo potea bertan eskainiko da.

**CARNICERIA I. ARREGUI**  
**HARATEGI ETA URDAITEGIA**

*Ongi pasa festetan!*  
 Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Etxeko obradorea:  
 tripota  
 tripotxa  
 mihia  
 kalluak  
 saltxitxak  
 frituak

tel. 948 576 067  
 Herriko plaza z/g LAKUNTZA

**GANUZA ANAIK**  
 www.cocinasganuza.com

Sukaldeko altzari lantegiak Festa onak pasatzen  
 Bainu gelako altzariak | Horma armairuak | Etxetresna elektrikoak

Finantzatzeko aukera

c.ganuza@cocinasganuza.com

Zumurdineña industrialdea | 948 460 203 | Faxa: 948 460 673 | Etxarri Aranatz



**LIZARRAGA****Harleze eguna****>> Agorrilak 15, larunbata**

Lizarragan mendira igoz hasiko dute eguna. 9:00ak aldera ekin diote aldapari. Behingoian, Arragarten, San Adrian ermita inguruan, kontzejuak elkartutakoguztiei auzatea eskainiko die (10:30 aldera). Jan-edanean eta elkarrekin kontu kontari egon ondoren Harlezerantz joko dute. 11:30ak aldera leizera sartu-irtena egingen dute, herrirako bideari heltzeko.

Herri-bazkaria zain izanen dute (14:00etan). Majo bazkaldu ondoren etxez etxeko errondari ekin diote txarangaren doinuez lagunduta. Afal garairaino luzatuko dute erronda. 21:30ean kontzejuak eskainitako marmitakoa dastatuko dute eta ordutik 1:00ak arte dj batek dantzarako doinuek jarriko ditu.

**UHARTE ARAKIL****Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologia****aztarnategira****>> Agorrilaren 15ean, larunbatean**

**11:00etan** Uharte Arakilgo Zamar-tzen. Aurretik izena eman: info@aditu.info

**ITURMENDI****Aritzaga ermitara****>> Agorrilak 15, larunbata**

Aritzaga ermitak Ama Birjinaren eguneko meza hartuko du, eguerdian. Ondoren, ermitaren izen bereko elkarteak auzatea eskainiko du. Iturmendiko ermita erromanikoa bisitatzeko aitzakia ederra.

**URDIAIN****Pancho Balbuena Medina Mariatxia****>> Agorrilaren 15ean, larunbatean**

**17:00etatik 18:30era** Urdiaingo igerilekuan. Sarrera doan.

**ETXARRI ARANATZ****Amerjinaan egunien bendatzia****>> Agorrilak 15, larunbata**

Etxarriarrak urtean bigarren eta

azkeneko aldiz, merendatzera elkartuko dira Andra Mari ermitaren inguruan. Txistulariak lagun, udal agintariak 19:00etan ermitarantz abiatuko dira. Iritsi eta etxajua bota ondoren merendatzen hasiko dira bildutakoak. Mahaitik jasota kintonek dantzakia dantzatuko dute eta

ondoren kalejiran plazara jaitsiko dira etxarriar gehienak, plazan dantzaldia izanen baita Orots taldearekin, 19:30etik 22:00etara eta 00:00etatik 3:00etara.

**ALTSASU****Pirinioak****>> Agorrilaren 15ean eta 16an, larunbatean eta igandean**

Altsasuko Mendigoizaleak taldea.

**ALTSASU****Altsasu Xtreme 2.0****>> Agorrilaren 15ean, larunbatean**

**10:00etatik aurrera** Altsasun.

**IRURTZUN****Pirinioak****>> Agorrilaren 16an, igandean**

Iratxo mendi taldeak antolatutako irteera.

[www.jaraialdia.com](http://www.jaraialdia.com)

**2015eko Abuztuaren 12tik 16ra**

*Araia-Asparreneko*

**UMORE ANTZERKIAREN XXII. JAIALDIA**



Laguntzen ditu:

Marka of Alava  
**Diario**

**Vital** gaurte ekintza obra social

**radio vitoria**

Antolatzen ditu:

AYUNTAMIENTO DE ASPARRINA  
ASPARRINGO UDALA

Dirulaguntza ematen ditu:

FORO JAURKARITZA  
GOBIERNO VASCO



**LAKUNTZA**

**Lakuntzako Pertza erromeria**

>> Agorrilak 16, igandean

**6:00etatik aurrera**

Lakuntzako Pertza erromeriak istorio bitxia du atzetik. Istorio horren arabera, garai batean lakuntzarrak San Migel santutegira igotzen ziren Asulbizio festa ospatzera, eta behin, asto gainean tripotaz beteta zeramaten pertza erori zitzaizen bidean. Pertza maldan behera bueltaka hasi, egositako tripota batek Uharteko errotariari begian jo eta betoker utzi omen zuen. Gertakari horren kontura burula asko egiten zieten lakuntzarrei. "Lakuntzako pertzak ze fin ein zuben?" galdetzen zieten. "Zuben aitek eta amak izan zuben" omen zen erantzuna. Baina lakuntzarrek buelta eman zioten burula horri, eta Lakuntzako Pertza izeneko elkar-tea sortu eta aipatu elkar-tea Lakuntzako Pertza eguna antolatzen hasi zen, asto, pertza, tripota eta guzti.

Festa Ama birjinaren ondoko igandean ospatzen da, aurten agorri-laren 16an. Goizeko 6:00etan Aralarko santutegiko bidea hartuko dute lakuntzarrek Lakuntzako Pertza elkartetik, tripotak, ogia eta ardoa daramatzan astoarekin batera. Bide erdian, behin pertza erori omen zen tokian, geldialdia egiten dute tripotak jateko. Eta segidan San Migelera helduko dira.

Aralarko santutegian meza 11:00etan izanen da. Haren ondoren tripotak, ardoa eta ogia banatuko ditu Lakuntzako Pertza elkar-teak, eta Bil-toki gazte elkarteko kideek Lakuntzako Pertza dantza dantzatzuko dute. Ohi denez, bazkaltzera Guardetxera jaitsiko dira lakuntzarrak. Bazkaldu ondoren Guardetxean bertan dantzaldia izanenda, 16:30etik 18:30era, eta, geroago, Lakuntzara jaitsita, 20:00etatik aurrera ere dantzaldia izanenda. Ondoren ordu txikiak arte iraunen du festak.

**IRURTZUN**

**Udako zinema: Loreak**

>> Agorriaren 19an, asteazkenean

**22:00etan** Irurtzungo Foru plazan.

**ALTSASU**

**Gauoko pulunpa**

>> Agorriaren 20an, ostegunean

**20:00etatik aurrera**

Bainua eta aquadance eskaintza dago 12 urtetik gorako gazteendako Dantzaleku igerilekuan. 20:00etatik 21:00etara ogitartekoa eta freskagarria 3 eurotan dute.

**FESTAK Lakuntza:**

>> Agorrilak 21, ostirala (festen bezpera)

**18:00etan** Haurrentzako Altxorraren bila.  
**19:00etan** Parkea Martxan Areto Futbol Txapelketako 3. eta 4. postuak.

**20:00etan** Poteo herrikoia Biltoki elkar-teak lagunduta.

**23:30** DJ festa Sorgiñak tabernan, Sorgiñak tabernaren eskutik

>> Agorrilak 22, larunbata

**9:45ean** Guardetxera igoera herrikoia (Zabalarte).

**11:00etan** Parkea Martxan Areto Futbol Txapelketako finalak

**11:30ean** Diana Lakuntzako txistulariekin.

**12:00etan** Ezkil errepikea.

**12:30ean** Txupinazoa.

**12:30ean** Erraldoi eta Buruhandi konpartaren irteera, Haizaldi gaiteroekin.

**13:00etan** 2014an jaiotako haurrei zapi banaketa.

**13:00etan** Auzatea, Lakuntzako Udalaren eskutik.

**13:25ean** Parkea Martxan txapelketako eta Guardetxeko igoerako sari banaketa Herriko plazan.

**13:45ean** Brindisa Haizea elkartean.

**15:00etan** Bazkari herrikoia plazan: Perso eta iheslariak etxera! (Haizea elkar-tea).

**16:30etan** Haurrendako Aapar festa Larraina plazan.

**18:30ean** Elai Alai dantza taldearen emanaldia Herriko Plazan.

**19:30ean** Larrain dantza.

**20:00etan** Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.



**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Herriko Plazan Tximeleta taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**23:30etik 24:15era** Correfoc, Kataluniako deabru federazioak eskainia.  
**00:30etik 04:00etara** Dantzaldia herriko plazan Tximeleta taldearekin.

>> Agorrilak 23, igandea

**12:30ean** Meza Nagusia (Parrokia).

**13:00etan** Auzatea Lakuntzako Pertza Elkar-tearen eskutik.

**13:00etan** Flamenko-Txalaparta fusioa Herriko Plazan.

**18:00etan** Euskal Herriko 2. mailako Aizkolari final haurreko txapelketa.

**18:00etan** Zorri azoka, Sakanako artisauek eta ekoi-zleekin iturri azpiko plazan.

**20:00etan** Kontzentrazioa: Preso eta iheslariak etxera! (Haizea elkar-tea).

**20:15ean** Auzatea ehiztarien eskutik.

**20:15etik 22:00etara** Dantzaldia herriko plazan Oarkabe taldearen eskutik.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**00:30etik 02:30era** Dantzaldia Herriko Plazan Oarkabe taldearen eskutik.

>> Agorrilak 24, astelehena.

**Haurren eguna**

**11:30ean** Dianak Lakuntzako txistulariekin.

**11:00etatik 14:00etara** Puzgarriak Herriko Plazan.

**12:30ean** Erraldoi eta Buruhandi konpartaren irteera, Haizaldi gaitariekin.

**13:00etan** Auzatea Gurasoen eskutik.

**14:00etan** Bazkaria haurrendako (Ekarri zure bazkaria eta zatoz moztortua).

**14:30ean** Gazte bazkaria Biltokin.

**16:30ean** Sokamuturra eta animaliak parkean.

**18:00etan** Zirko Loretsuarekin Lapurretak saioa herriko Plazan

**20:00etan** Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.

**20:00etan** Buruhandiak.

**20:00etatik 22:00etara** DJ Tirri & Terryrekin Mozorro Gaua Herriko Plazan.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**23:00etan** Kontzertuak Biltokin.

**00:35etik 02:30era** DJ Tirri & Terryrekin emanaldia Herriko Plazan.

>> Agorrilak 25, asteartea.

**Aittun-Amiñen eguna**

**11:30ean** Kalderete lehiaketa.

**12:00etan** Meza Nagusia (parrokia).

**12:30ean** Bizikleta zintzen jolasak Aldababide Plazan (Kaskoa derrigorrezkoa izango da)

**13:00etan** Auzatea Gure Nahiaren eskutik.

**13:00etan** Mariatiak Herriko Plazan.

**14:00etan** Kaldereteko plater bilketa eta sari banaketa.

**14:30ean** Aittun Amiñen bazkaria herriko plazan.

**16:30ean** Kalba jokoa Biltoki aurreko zelaietan.

**17:00etan** Kadeteen mailako XV. Lakuntzako Saria- Sakana Fundizioa txirriindulari proba

**17:00etan** Aittun Amiñen dantzaldia Iñakiren eskutik.

**20:00etan** Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.

**20:00etan** Buruhandiak.

**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia herriko plazan Egan taldearen eskutik.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**23:00etan** DJak Biltokin.

**00:30etik 04:00etara** Dantzaldia Herriko Plazan Egan taldearen eskutik.

>> Agorrilak 26, asteazkena.

**Euskararen eguna**

**12:00etan** Lakuntza kantuz Kuxkuxtu musikariekin batera herrian barna.

**13:00etan** Auzatea Haizearen eskutik.

**14:30ean** Euskararen aldeko kantu bazkaria Kuxkuxturekin. Bazkari ostean haur jolasak.

**18:30ean** Ilusioaren indarra ikuskizuna Hodei magoaren eskutik.

**20:00etan** Auzatea Lakuntzako Udalaren eskutik.

**20:00etan** Buruhandiak.

**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia herriko plazan Elebitan taldearen eskutik.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**00:35etik 02:30era** Dantzaldia herriko plazan Elebitan taldearen eskutik.

>> Agorrilak 27, osteguna.

**Gazte eguna.**

**13:00etan** Auzatea Biltokiren eskutik.

**13:00etan** Musika plazan.

**15:00etan** Bazkaria bertsolariekin + Pirolo lehiaketa.

**17:00etatik 20:00etara** Elektrotzaranga herriko kaleetan zehar.

**20:00etan** Buruhandiak.

**20:00etatik 22:00etara** Kontzertua herriko plazan.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**00:35ean** Kontzertuak herriko plazan: Skabidean, Gozo Gozo eta Zerroatu.

Oharra:

Barraren prezioa: bidaia bat 2,00€, hiru bidaia 5,00€ eta zazpi bidaia 10,00€.

Festen aurrekontua: 29.955,00 €

**KARASATORRE**  
**HESTEBETE ARTISAUAK**

Artisan erara egindako hestebeteak  
Autozerbitzua  
Etxeko tripekiak  
Ongi pasa festetan!

Kale Nagusia, 22 · Etxarri Aranatz · 948 460 036

**Igoa**  
arroiendegia

948 460 111 · Arkuetabide kolea · Etxarri Aranatz

**xalok**  
CENTRO ESTETICO DEPORTIVO Y NUTRICIONAL

- Dietetika - nutrizioa
- Kirol medikua
- Prestatzaile fisikoa
- Fisioterapia-osteopatia
- Estetika
- Soinketa gela

Ongi pasa festetan!

**TXANDA ESKATU**  
948 460 993 / 661 541 431  
www.xalok.es  
Burundabide 14 · Etxarri Aranatz



**SAKANA****Euskal Presoak  
Euskal Herrira!****>> Agorriaren 21ean,  
ostiralean****20:00etan** Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.**ALTSASU****Altsasu-Aralar-  
Altsasu****>> Agorriaren 22an,  
larunbatean****8:00etan** Altsasuko kultur gune paretik. 120km. Zikloturista taldea.**UHARTE ARAKIL****Bisita gidatuak  
Zamartzeko  
arkeologia  
aztarnategira****>> Agorriaren 22an,  
larunbatean****11:00etan** Uharte Arakilgo Zamar-  
tzen. Aurretik izena eman: info@adi-  
tu.info**IHABAR****Ihabarko kabareta****>> Agorriaren 22an,  
larunbatean, 22:00etan  
eta agorriaren 23an,  
igandean, 21:30ean  
beheko iturrian**Ihabarko antzerki tailerrak kabare-  
tean girotutako obra eskainiko du  
bi egunetan. Informazio gehiago 22.  
orrian.**LAKUNTZA****Euskal Herriko  
2. Mailako Aizkora  
Txapelketako  
kanporaketa****>> Agorriak 23,  
igandea****18:00etan** Lakuntzako festetan,  
igandean, Euskal Herriko 2. Maila-  
ko Aizkora Txapelketako kanpora-  
keta jokatu da.**IRURTZUN****Botxa txapelketa****>> Agorriaren 25etik  
irailaren 2ra**

Irurtzungo Iratxo elkarteko botxa-

tegian. Aizpea Euskaltzaleen Topa-  
gunea.**FESTAK  
Irañeta:****>> Agorriak 27, osteguna**  
**14:30ean** Kalderete lehiaketa.  
**18:30ean** Fronteniseko finala.  
**20:30etik 22:00etara** Dantzaldia eta  
ardoa txokoan.  
**22:15ean** Zezensuskoa.  
**22:30ean** Herri afaria.  
**00:00etatik 3:30era** Dantzaldia.**>> Agorriak 28, ostirala**  
**10:00etan** Hamarretakoa: Baba txikiak  
txerri buztanarekin.  
**11:00etan** Mus txapelketa.  
**17:00etan** Etxez etxeko erronda.  
**17:30ean** Txokolate jana.  
**18:30ean** Platera tiroka.  
**19:30ean** Mozorroak.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia eta  
ardoa txokoan.  
**22:15ea** Zenzensuskoa.  
**00:00etatik 3:30era** Dantzaldia.**>> Agorriak 29, larunbata**  
**13:00etan** Meza patriaren omenez eta  
jarraian otamena.  
**17:00etan** Erronda kopera.  
**18:00etan** Pilota partida.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia eta  
ardoa txokoan.  
**00:00etatik 3:30era** Dantzaldia.**>> Agorriak 31, igandea**  
**15:00etan** Herri bazkaria.  
**17:30ean** Haurrendako puzgarria.  
**17:00etan** Etxez etxeko erronda.  
**20:00etatik 23:15era** Dantzaldia eta  
ardoa txokoan.**ALTSASU****Gauoko pulunpa****>> Agorriaren 27an,  
ostegunean, 20:00etatik  
aurrera**Dantzaleku igerilekuan 12 urtetik  
gorako gazteek bainua hartu eta gyn-  
kanan parte hartzeko aukera izan-  
en dute. Bokata eta freskagarria 3  
eurotan izanen dute ere.**ALTSASU****Movimiento Bola,  
bakarrizketak****>> Agorriaren 27an,  
ostegunean****23:00etan** Altsasuko Haritza tabe-  
nan.**FESTAK  
Ihabar:****>> Agorriak 28, ostirala**  
**19:00etan** Txupinazoa Arakilgo Batukada  
Taldeak alaituta.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Orots  
taldearekin.  
**22:00etan** Herri afaria.  
**1:00etatik 4:30era** Dantzaldia Orots  
taldearekin.  
**4:30ean** Ingurutxoa eta tapia gaineko jota.**>> Agorriak 29, larunbata**  
**13:00etan** Otamena.  
Pilota partiduak: Jaka-Beraza.  
**14:00etan** Herri argazkia.  
Kaldereteak pilotalekuan.  
**18:00etan** Herrikoen arteko Ginkana.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia "Alaiki  
taldearekin.  
**22:00etan** Koadrila afaria.  
**23:30ean** Txep kontzertuan.**1:00etatik 4:30era** Dantzaldia "Alaiki  
taldearekin.  
**4:30ean** Ingurutxoa eta tapia gaineko jota.**>> Agorriak 30, igandea**  
**12:00etan** Meza nagusia Donezteberen  
omenez.  
**13:00etan** Otamena.  
Grupo Solidarioen jotak, habanerak eta  
rantxerak.  
**14:30ean** Ihabarko ingurutxoa.  
**17:00etan** Mus eta partxis txapelketa.  
**18:00etan** Txapela jaurtiketa eta paka  
igoera.  
**20:00etatik 23:00etara** Dantzaldia Mikel  
Kinterorekin.  
**22:00etan** Zezensuskoa.  
**Ondoren** Parrillada.  
**23:00etan** Dantza-mugi.**>> Agorriak 31, astelehena**  
**12:00etan** Haurrendako jolasak.  
**13:00etan** Otamena.  
**14:30etan** Paellada.  
**Ondoren** bingoa.  
Festetako sarien banaketa.  
**16:00etatik 20:00etara** Puzgarriak.  
**18:00etan** Txokolate jana, buruhandiak.  
Mozorroak, marrazki erakusketa.  
**20:00etatik 23:00etara** Dantzaldia Mikel  
Kinterorekin.  
**23:00etan** Txistorra-jana.  
**Ondoren** gaupasa elkartean.**SAKANA****Euskal Presoak  
Euskal Herrira!****>> Agorriaren 28an****PPSOE,  
ETB  
digitala  
Nafarroan  
orain!****Berria erosi taldea**

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda  
Enkargatu zure  
testu liburuak

**bai**  
nabarrak

Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477  
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**20:00etan** Irurtzun, Uharte Ara-  
kil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Ara-  
natz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin.  
Hileko azken ostiraleko elkarreta-  
ratzea.**LAKUNTZA****Zinema plazan:  
Izarren argia****>> Agorriaren 28an,  
ostiralean****22:00etan** Lakuntzako plazan.**FESTAK  
Errotz:****>> Agorriak 29, larunbata****14:30ean** Herri bazkaria.  
**17:30ean** Nanoren emanaldia, haurrenda-  
ko.  
**19:00etan** Txokolate-jana.  
**20:30etik 22:30era** Dantzaldia.  
**22:30ean** Zezensuskoa.  
**00:30etik 4:30era** Dantzaldia.**>> Agorriak 30, igandea****11:00etan** Meza.  
**12:30ean** Otamena.  
Mus eta briska txapelketen finalak.  
**17:30etik 21:00etara** Puzgarriak.  
**20:00etan** Mexikarrak.**>> Agorriak 31, astelehena****11:00etan** Etxez etxeko erronda.  
**14:30ean** Herri bazkaria eta hau pena nik!**UHARTE ARAKIL****Bisita gidatuak  
Zamartzeko  
arkeologia  
aztarnategira****>> Agorriaren 29an,  
larunbatean****11:00etan** Uharte Arakilgo Zamar-  
tzen. Aurretik izena eman: info@adi-  
tu.info.

**Ana  
Santano**

Bularra ez da soilik elikadura

Edoskitzerako  
amendako  
laguntza

635 811 106  
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu





## ARBIZU

### Arbizuarrak erromerian: Sandindei eguna

>> Agorrilak 29, larunbata

Txistulariak lagun, arbizuarrak Aralar aldeko basoan dagoen Sandindei bordarantz abiatuko dira Arbizutik kalejiran, 11:30ean. Ibilbidea eginda, batutako arbizuar guztiendako aate pixka bat izanen da 13:00etan. Mahaiaren bueltan bazkaltzeko garaia etorriko da gero. Ilundu aurretik, 19:00etan, eta trikitixa doinuak lagun, festa giroan Arbizurako bidea hartuko dute guztiak. Plazako dantzaldiarekin parranda luzatu egingen dute Arbizun.

Arbizuarrek Sandindei eguna 2005etik ospatzen dute. Sanjuane-tatik kanpo herritarrendako festa egun batean biltzeko premia ikusi zuten eta erantzuna bikaina izan zen. Aurreko urtera arte agorrilaren erdialdean ospatzen zuten, baina aurreko urtean festa agorriko azken asteburura pasatzea erabaki zuten.

## ALTSASU

### Ezin zailagoa

>> Agorrilaren 29an, larunbatean, Altsasun.

Nafarroako zirko jaialdia hainbat ikuskizun ekarriko ditu Altsasura.

## ALTSASU

### Ospa Eguna

>> Agorrilaren 29an, larunbatean, Altsasun

Ospa mugimenduak laugarren aldiz antolatu du Ospa eguna (2011koak Erregearen diskurtsoa zuen izena). Aurreko edizioetan bezala, aurtenera "okupazio indarrak hemen ez ditugulanahi" adierazteko baliatuko dute egunean zehar antolatutako egitaraua. Aurtengo Ospa egunak honako leloa du: ez dirageldituko, geldituzenez badi-tugu! Errepresioaren aurka, garaipenera arte!

## ALTSASU

### Dientes de Batanes

>> Agorrilaren 30ean, igandean.

Altsasuko Mendigoizaleak taldea.

## UHARTE ARAKIL

### Artzain Eguna 48 urte

>> Agorrilaren 30ean

10:00etatik aurrera, egun osoko jai Uharthe Arakilen Aurtun 48 urte beteko ditu Uharthe Arakilgo Artzain Eguna. Aralar Mendi elkarteak urte horiek guztiak daromatza artzainen festa bilakatu den jai herriko eta polita antolatzen, eta urtero jendetza biltzen da Uharthe kale eta txoko ederretan. Zerbaitekongi funtzionatzen badu, zertarako aldatu? Hori uste dute Uharthe Arakilen. Horrela, urtero errepika-

tzen diren ekitaldiek ez dute huts egingen: gazta txapelketa entzuten enkan-te ikusgarriekin, ardi mozte txapelketa ikusgarria, ardi latxa esne-ekoizpen lehiaketa, ardi gisatuaren lehiaketa eta nola ez, artzain txakurren lehiaketa. Horrekin batera mota guztieta-ko jaki eta gutziak eskaintzen dituzten hamaika postu, musika lagun primerako giroan mokadutxo goxoak hartzeko txosnak eta tabernak, artzain postuetan galtzeko aukera, gazta bikainak erosteko parada, azken teknologiako lanabes eta makineriak gertutik ikusteko modua, aspaldiko ezagunekin elkartzeko aukera eta animatzen den arendako herri bazkari paregabea. Eta arratsaldean txakurrek artzainen aginduei nola egiten dieten kasu jarraitzeko aukera.

Aralar Mendi elkarteak garai bateko artzaintzaren bizimodu gogora ekarri nahi du festarekin, eta, aldi berean, egungo artzainak omendunahi ditu festagiroan. Ogibide zahar honek sortzen dituen produktuei bultzada eman nahi zaie, eta horretarako, artzainen bizitza eta baliabideak ardatz hartuta prestatzen da egitaraua. Artaldeak Aralar menditik Beriainera nola pasatzen ziren gogoratzeke, 11:30ean artalde batek Uharthe Arakilgo herri gunea zeharkatuko du, Ordiziako azokan egiten den antzera.

[www.artzaieguna.com](http://www.artzaieguna.com)

Artzai eguneko informazio guztia.

## 48. ARTZAIN EGUNA. EGITARAUA

### Artzainen

#### omenaldi festa

10:00etan Epaimahaiaren hautaketa. Aurrekoa.

10:30etik 14:30era Nafarroako ardi latxa esne gordinaz egindako gaztaren XXXIV. Txapelketa. Saritutako gazten enkan-tea, dastatzea eta gaztaren feria.

10:30etik 13:30era Nafarroako XXXII. ardi latxaren erakusketa eta esne-ekoizpen lehiaketa. Latxa arrazako ardi aukeratuen XII. lehiaketa nazionala (hau da bertako ardi latxaren txapelketarik garrantzitsuenak).

11:30ean Aralar-Andiara aldaketa egiten, herrian barna artaldea pasako da. Goizean Artzain bat betidaniko erara gazta egiten ikusi ahal izango dugu Donibane plazan.

11:00etatik 13:00etara Nafarroako XXVIII. ardi mozte mekanikoaren txapelketa, Espainiako txapelketarako sailkagarria.

11:00etatik 12:00etara Euskal artzain txakurren, Pirinioetako artzain txakurren eta galzorian dauden arrazen XXIII. erakusketa.

12:00etan Agur Jaunak. Artzain egunaren parte hartu duten eta bertako kulturaren alde lan egin duten pertsona, entitate eta taldeei omenaldia.

12:15ean XXI. ardi gisatuaren txapelketa eta dastatzea.

12:45ean Nafarroako ardoen XXI. dastatzea.

13:30ean Goizeko lehiaketa guztietako sariak eta txapelak banatuko dira. Ondoren, gazta erdi irabazlearen enkan-tea plazan.

14:30ean Uharthe Arakilgo frontoi estalian herri bazkaria: Nafarroako axuriarekin prestatutako menua (txartelak argibide mahaian salduko dira goiz guztian barna).

17:00etan Nafarroako bertako 48. Artzain Txakurren Lehiaketa Ofiziala Geinberako barrutian (Euskal Herriko eta Oñatiko Nazioarteko txapelketetarako sailkagarria). Partaide eta antolatzaile zaharrei omenaldia.

\*Goiz guztian zehar: gazten eta eskuz eginiko beste produktuen erakusketa; eskulanean erakusketa: kaikuak, egurrezko uztaiak, apaingarriak, zeramika, egurra,

ardazlariak, taloak, jakiak... Euskal dantza, musika taldeak eta joaldunak.

## IRURTZUN

### ITBren tailerra

>> Agorrilaren 31tik irailaren 8ra

11:00etatik 13:00etara

Aizpea euskaltzaleen topaguneak Irurtzun Telebistaren tailerra antolatu du. 7 eta 14 urte bitartekoei zuzendutako tailerra da. Parte hartu nahi dutenek agorrilaren 17tik 26ra eman dezakete izena Martxuetan liburu-dendan. 20 euro ordaindu beharko dituzte.

## ALTSASU

### Festetako kartel lehiaketako lanen erakusketa

>> Irailaren 1etik 10era

Altsasuko lortia kultur gunean

## ALTSASU

### Garagardo azoka

>> Irailaren 3tik 6ra, ostegunetik domekara

9:00etatik 24:00etara Altsasuko Zubeztia plazan. Zubiondo elkar-tea.





## SAKANA

# Dagoeneko 255 sakandar joan dira San Joan baleontzia ezagutzera

**Sakandar guztiak Pasaiaiko Ondartxo museoa bisitatzeko gonbidapen bana dugu gure udaletxean**

Kanadan 1565 urtean urperatu zen San Joan baleontziaren errepika eraikitzeko Sakanako haritzak erabiltzen ari dira Pasaian. Sakanak eta Albaolak akordio itxi zuten eta, horren baitan, sakandar guztiok baleontzia eraikitzen ari diren Ondartxo museoa bisitatzeko sarrera bana dugu. Bisita egin nahi duten pertsonak euren udaletxetik pasa behar dute hura

jasotzera. Albaolatik jakinarazi digutenez, garagarriaren 15az geroztik 255 sakandar bisitatu dute museoa. 20.504 sakandarrek Hondartxo museoa dohainik bisitatzeko aukera dugu aurten. Sarra horietatik 3.230 ikastetxeen bidez banatuko dira.

## Ondartxo

Museoa hiru gunetan banatua dago. Batetik, erakusketa iraunkorra: San Juan itsasontzian oinarrituta, Euskal ontzigintzaren eta bale

## Bisita motak

Ontziolarako bisita librea edo gidatua izandaiteke. Azken aukera hori nahi dutenek gutxienez bi eguneko aurrerapenarekin jakinarazi behar dute 943 392 426 edo bisitak@albaola.com helbidean.



Ondartxo museoa jendea bisitan. WWW.ALBAOLA.COM

arrantzaren inguruko historia kontatzen da panelen bidez: Sakanako basoetako hariztietan hasi eta kos-

taldeko zurginen laneraino. Bestetik, tailerra: maisu zurgileak hainbat pieza zuzenean egiten ikuste-

ko aukera izaten da. Azkenik, ontziola: San Juan baleontzia zuzenean eraikitzen ikusten da.



## 4.030,14 hektarea Nekazaritza Politika Baturako

**Azalera handiena animalien bazkarako laborek hartzen dute, %84,63**

Sakanako nekazari eta abeltzainen Europako Nekazaritza Politika Bateraturako (NPB) 4.30,14 hektarea deklaratu dituzte, Nafarroako Gobernuak jakinarazi digunez. Eremu handiena, 3.410,78 hektarea, abereendako bazkara zuzenduta dago (84,63). Europarako aitortutako beste sailak askoz ere eremu txikiagoa hartzen dute. Bestelako baso eremuak 121,02 dira (%3).

Artoa hazten ikusten ari diren 147,65 hektarea ditu (%3,66). Gari

biguna, berriz, 132,05 hektareako eremua hartu du (%3,28). Garagara 113,48 hektareatan erein zen (%2,82). Zalkea ereitera 35,05 hektarea bideratu dituzte (%0,87). Oloa hazteko 32,08 hektarea erein dira Sakanan (%0,8). Nekazal eta baso ez diren bestelako erabilere-tarako 14,26 hektarea bideratuak daude (%0,35). Lugoerri daudenak 8,16 hektarea dira (%0,2). Gainera: patata 6,35 (%0,16); zalkea oloarekin edo gariarekin nahastuta 4,48 hektarea hartzen ditu (%0,11); ekilorea 2,55 (%0,006); baba 1,21 (%0,03) eta txipuak 1,02 (%0,03).

Udalerriei dagokienez, landu-

tako mila hektareatik gora Arakilek besterik ez du. 80 hektarea baino gutxiago aitortu dituzte, berriz, Irurtzunen, Bakaikun, Iturmendin eta Olatzagutian.

## Bazka-laboreak

Animaliendako elikagai izateko ereiten 3.410,78 hektareatik 2.332,25 (ibarren ereindako guztiaren %57,87) 5 urte edo gehiago dituzten larreak dira. 439,1 hektarea raygras deklaratu dituzte (%10,9). Bost urte baino gutxiago dituzten larreek 415,96 hektarea hartzen dituzte (%10,32). Espezie pratenseen sail mistoek Sakanan



210,91 hektarea egiten dute (%5,23) eta, azkenik, ibarrean 12,56 hektarea alpapa daude (%0,31).

Lugoerri gelditu den eremutik,

ohiko lugoerria 1,91 hektarea dira (ibarrean aitortutako guztiaren %0,05) eta gainontzeko 6,25ak ekoizpen gabekoak (%0,16).

### Herriz-herriz ereindakoa

Herria	Garia	Garagarra	Oloa	Artoa	Baba	Zalkea	Nahasketak*	Patata	Ekilorea	Beste baso eremuak	Beste erabilerak	Txipuak	Lugoerri	Bazkarako	Guztira
Arakil	115,94	69,4	24,97	72,9	0	32,96	0	0	0	90,7	0	0	2,07	943,81	1.352,75
Irurtzun	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	38,25	38,25
Irañeta	4,66	12,05	0	8,36	0	0	0	4,9	0	0	4,18	0	0	136,06	170,21
Uharte A.	5,7	2,12	0	23,05	0	0	0	0	0	0	0	0	1,72	627	659,59
Arruazu	0	3,52	1,88	22,15	0	0	3,23	0	0	0	0	1,02	1,54	95,59	128,93
Lakuntza	0	3,08	1,83	8,58	0	2,09	1,25	0	0	0	0	0	0	106,07	122,9
Arbizu	2,25	6,18	0	2,07	1,21	0	0	0	0	2,31	0	0	0	128,98	143
Ergoiena	0	15,47	0	0	0	0	0	1,45	0	6,9	5,01	0	0	581,38	610,21
Etzarri A.	0	0	0	7,65	0	0	0	0	2,55	0	0	0	0	273,81	284,01
Bakaiku	1,65	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3,06	0	1,79	48,5	55
Iturmendi	0	0	0	2,89	0	0	0	0	0	0	0	0	0	52,41	55,3
Urdiain	1,85	1,66	3,4	0	0	0	0	0	0	0	2,01	0	1,04	96,07	106,03
Altsasu	0	0	0	0	0	0	0	0	0	15,59	0	0	0	106,72	122,31
Olatzagutia	0	0	0	0	0	0	0	0	0	5,52	0	0	0	72,08	77,6
Ziordia	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	104,05	104,05
Guztira	132,05	113,48	32,08	147,65	1,21	35,05	4,48	6,35	2,55	121,02	14,26	1,02	8,16	3.410,78	4.030,14
%	3,28	2,82	0,8	3,66	0,03	0,87	0,11	0,16	0,06	3	0,35	0,03	0,2	84,63	100

\*Zalkea eta oloa edo zalkea eta garia.

"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik"



# LAKUNTZAKO UDALA

www.lakuntzakoudala.com  
info@lakuntzakoudala.com  
tel. 948 576 015



Lakuntzako Udala  
HERRITARREN PARTE-HARTZE PLANA



## Pilota



Olaztik San Migel-Sutegi Txapelketako finalistak. UTZITAKOIA

## Olaztik baditu txapelkunak

**Murgiondo-Mariekurrena gailendu ziren XLIV. San Migel Pilota Txapelketako 22 urtez azpikoekin finalean. Guztira 14 final jokatu ziren**

Apirilaren bukaeran hasiz Olatiko San Migel elkarteak eta Sutegegi klubak antolatutako XLIV. San Migel Pilota Txapelketa. Guztira 52 bikote lehiatu dira. Bestalde, 194 bikote lehiatu dira kategoriatxikiko San Migel-Sutegi txapelketako finalean. Olaztik Santa Ana festetan txapelkunak jakiteko garaia iritsi zen. Larunbatean kategoriatxikiko finalak jokatu ziren eta igandean, aldiz, kategoriatxikiko final bikainak izan ziren, 14

final guztira, 5 kategoriatxikiko nagusian eta gainontzekoak txikietan.

Nagusietan aipatzekoa da 22 urtez azpiko afizionatuen finala etxean geratu zela, Murgiondo etxarriarrak eta Mariezkurrenak 22-11 hartu baitzituzten menpean Txiapuso eta Aranguren. Bestalde, Garmendia eta Imaz (Arbizu) umeen lehen mailako txapelari eusteko gai izan ziren.

Antolatzaileak, beste behin, pozik daude txapelketak utzitakoarekin. Parte-hartzea bikaina izan da eta pilotariek eskaintako ikuskizuna, borobila.

43. San Migel txapelketa (nagusiak):

**Lau t'erdian:** Eneriz 5 / Etxeberria 18  
**3. maila:** Jokin-Muñoa 18 / Mendoza-Mendoza 13

**2. maila:** Eneriz-Borrega 6 / Muñoa-Insusti 18  
**1. maila:** Urteaga-Lauzirika 18 / Nogueira-Sueskun 17

**22 urtez azpikoak:** Murgiondo-Mariekurrena 22 / Txiapuso-Aranguren 11

San Migel-Sutegi txapelketa (txikiak)

**Txikiak:** Mintegi-Kerejeta (Idiazabal) 18 / Hegoi-Aitor (Olazti) 13

**Umeak 2:** Perez-Bernalte (Elorrio) 12 / Barandiaran-Otegi (Zegama) 18

**Umeak 1:** Garmendia-Imaz (Arbizu) 18 / Unax-Iker (Etxarri Aranatz) 15

**Kimuak:** Egiguren-Labaka (Azpeitia) 11 / Artaraz-Emaldi (Zeanuri) 18

**Haurrak 2:** Barranko-Senar (Etxarri Aranatz) 4 / Larrazabal-Arandia (Amurrio-Dima) 18

**Haurrak 1:** Yuste-Muguruza (Laudio) 18 / Igoa-Irisarri (Zizur-Barañain) 5

**Kadeteak 2:** Otxoa-Lazkoz (Etxarri) 18 / Bordege-Garai (Zaramaga-Gasteiz) 16

**Kadeteak 1:** Sagasta-Azkarraga (Elorrio) 6 / Egiguren-Muruza (Azpeitia-Arrasate) 18

**Gazteak:** Elola-Roldan (Bidania-Goiatz-Zizur) 7 / Egiburu-Garmendia (Lazkao) 18

## Mendi lasterketak



Iñaki Martiarena helmugara iristen. UTZITAKOIA

## Mugagabe Traila Iñaki Martiarenarendako

**Joxeja Maiza hirugarrena izan zen**

Igandean Mugagabe Traila jokatu zen Laudion. Bi distantzia zeuden aukeran: maratonia (42km) eta 25 km-ko lasterketa. 27 korrikalarik osatu zuten maratonia eta Iñaki Martiarena izan zen azkarrena, lau ordu pasa korrikan aritu eta gero (4:23:29). Uhartearrak 10

minutu pasa atera zizkion Okondoko Jose Felipe Larrazabali (4:34:40). Joxeja Maiza etxarriarrak ere proba bikaina egin zuen eta hirugarrena izan zen (4:35:40).

Distantzia laburreko proban Unai Oria izan zen azkarrena (2:25:21). Jose Javier Beregaña uhartearra 49.a sailkatu zen (3:41:32).

## Areto futbola



Los Suaves eta Burutik Jotak taldeek lehia estua izan zuten.

## Los Suaves eta Kaimanak FC taldeak jokatu dute finala

**Agorrilaren 22an jokatu da Lakuntzako Parkea Martxan Tapelketako finala**

Ekainaren 27an hasi zen Lakuntzako I. Parkea Martxan Areto Futbol Txapelketa. Bi multzotan banatutako 8 talde aritu dira lehian. Lehen multzoan Bandiduek, Los Suaves, Karrotillo 2 eta Biltoki neskak, eta bigarren multzoan Kaimanak F.C., Burutik Jotak, Karrotillo 1 eta Sikomotronik. Hasierako ligaxka jokatu eta gero, txapelketak baditu finalistak: Los Suaves eta Kaimanak FC.

Asteburuan finalerako sailkatzeko gurutzaketak jokatu ziren. Los Suaves eta Burutik Jotak taldeek lehia oso estua izan zuten finalera sailkatzea baitzuten jokoan. Partida hirunako berdinketarekin despeditu zen. Azkenean, penaltietan, Los Suavesek lortu zuen finalerako txartela, 9-8 gailenduta.

Bestalde, Karrotillo 2 taldeak 3-1 irabazi zion Karrotillo 1 taldeari eta Sikomotronik taldeak 11-0 hartu zuen menpean Biltoki neskak. Bukatzeko, Kaimanak FC taldea 5-1 gailendu zitzaion Bandiduek taldeari, finalerako sailkatuz. Hortaz, Los Suaves veteranoen eta Kaimanak FC gaztetxoaren arteko finala jokatu da agorrilaren 22an.

## Finalak

Agorrilaren 21ean 3. eta 4. postua erabakitzeko partida jokatu dute Burutik Jotak eta Bandiduek taldeek, 19:00etan. Final handia Lakuntzako festetan lehen egunean jokatu dute Los Suaves eta Kaimanak FC taldeek, txupinazoa baino ordu bat lehenago, 11:00etan. Eta agorrilaren 20an, ostegunarekin, gainontzeko taldeek kontsolazio finalak izan dituzte jokatu, 19:00etatik aurrera.

## Areto futbola



Arbizuarrak Maisuenea gaztetxeak antolatutako txapelketako trofeoarekin.

## Maisuenea txapelketa Arbizurendako

**Arbizuko Kirol Taldeak 5-3 irabazi zion Petete Crew taldeari**

Olaztik festetan, larunbatean, jokatu zen Maisuenea Areto Futbol Txapelketako finala. Arbizu Kirol Taldeak eta Uhart Arakilgo Petete Crew sailkatu ziren fina-

lerako. Finala oso lehiatua izan zen. Atsedena dirira bina berdinduta iritsi ziren bi taldeak, baina bigarren zatian finago ibili ziren arbizuarrak eta, azkenean, 5-3 irabazita eskuratu zuten Olaztik txapelketa. Zorionak!



## Magna Gurpearen udako asmoak

**Irurtzango klubak lagunarteko 5 partida jokatu ditu**

Magna Gurpea Xotak agorrilaren 10ean ekingo dio aurre-denboraldiari. Aurten lagunarteko 5 partida jokatu ditu Imanol Arregik zuzentzen duen klubak, lehen mailako taldeak guztiak. 2015-2016 denboraldiko liga irailaren 11n hasiko da. Magna Gurpeak Palma Futsal taldea hartuko du.

## Lagunarteko partidak

**Agorrilak 18:** Magna Gurpea Xota - Aspil Vidal (tokia erabakirik gabe)

**Agorrilak 22:** Magna Gurpea Xota - Cangas E. Santa Coloma (Anaitasuna)

**Agorrilak 25:** Magna Gurpea Xota - Peñiscola (Noainen)

**Agorrilak 28:** Peñiscola - Magna Gurpea Xota (Peñiscola)

**Irailak 4:** D-Link Zaragoza - Magna Gurpea Xota (Zaragoza)



## Igeriketa



Argazki oina.

## Iñaki Gallego lehen sakandarra Getaria eta Zarautz igerian lotzen

2,8 km-ko proba gogorra 1.619 igerilarik osatu zuten

Igandean jokatu zen 45. Getaria-Zarautz igeriketa zeharkaldia. Itsoa nahasia zegoen baina hala ere igerilari asko animatu zen distantzia luzeko proba osatzera, giro bikainean. 1.619 igerilarik lortu zuten ibilbidea osatzea. Azkarrenak Alex Ojanguren (34:38) eta Irati Mendia (35:32) izan ziren. Sakandarrak maila bikaina eman zuten eta Iñaki Gallego altsasuarra izan zen azkarrena, helmugara 138. postuan iritsi eta gero (43:19).

### Sakandarrak XLV. Getaria-Zarautzen:

1.	Alex Ojanguren (Donostia)	34:38
138.	Iñaki Gallego (Altsasu)	43:19
173.	Mikel Perez de Eulate (Etx.)	43:58
788.	Josu Ducar (Arbizu)	54:25
839.	Patxi Aldasoro (Olazti)	55:06
914.	Luis Angel Diaz (Altsasu)	55:51
945.	Amara Gerrikagoitia (Arb.)	56:21
1.267.	Jon Miranda (Lakuntza)	1:01:57
1.375.	Jaione Astiz (Arakil)	1:04:41
1.416.	Alfonso Peral (Altsasu)	1:05:51

## Triatloia

## Alain Razkin txapelduna Azkoienen

XI. Azkoiengo Triatloiko aurrebenjaminen proba irabazi zuen

Asteburuan XI. Azkoiengo Triatloio jokatu zen, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria. Sakana Triatloio Taldeak hiru triatleta aritu ziren. Aurrebenjaminen mutilen mailan Sakana Triatloio Taldeko Alain Razkin gailendu zitzaion bere taldekide Ekain Imazi. Bestalde, kimuen mutilen mailan hamargarrena sailkatu zen Sakana T.T.-ko Xabier Borrega.

## Txirrindularitza

# Iruñeko Itzulia Etxarrin

XXIX. Iruñeko Itzuliko 2. etapa hartuko du Etxarrin asteazkenean, 17:00etan

Etxarri Aranazko festek bigarren urtez jarraian jubenilen mailako Iruñeko Itzuliko etapa hartuko dute. Zehazki XXIX. Iruñeko Itzuliko 2. etapa hartuko du Etxarrin agorriaren 5ean, asteazkenean, 17:00etan eta Aralar Txirrindularitza Klubak antolatuta. Jakina, Burunda eta Aralar Txirrindulari Klubetako txirrindulari sakandarrak lehiatuko dira bertan.

### 89km-ko etapa ederra

Ibilbidea aurreko urteko bera izanen da. Etxarritik aterata, Arbizura joango dira, Lizarragabengoatik pasa eta Etxarriaino iristeko. Ondoren, Etxarren Arakileraino joko dute, buelta hartu eta Arbizutik atzera ere Lizarragabengoatik pasatzeko. Ondoren, Etxarritik Lizarragarantz egiten dute, Lizarragako portua igo eta Arbizutik jaisteko. Berritro Lizarragabengoara jo eta Etxarritik pasa ondoren, Lizarragarantz joko dute, Unanura heldu eta Arbizurantz jaisteko. Lizarragabengoatik pasa eta gero, Etxarri Aranazko helmuga izango dute helburu txirrindulariek, 89 km-ko proba osatu eta gero.

Juniorren 29. Iruñeko Itzulia agorriaren 4an hasiko da, asteartean, Iruñeko Gaztelu Plazan hasi eta Mutiloan despedituko den 83 km-ko etaparekin. Bigarren etapa



Jubenil mailako txirrindulariak lehiatuko dira Etxarrin. BURUNDA

Etxarrik hartuko du, hirugarrena Sarrigurenek (87km) eta laugarrena eta azkena, agorriaren 7an jokatuko da, ostiralean, Iruñeko Santo Domingo kaletik hasi eta El Redinen despedituko dena (83,5 km). 2014an Etxarriko proba Mikel Alonsok irabazi zuen eta 3. Postuan Burunda klubeko Ibai Azurmendi sailkatu zen. Iruñeko Itzulia Huescako Jaime Castrillok irabazi zuen eta Azurmendi 15.a sailkatu zen, bigarren nafar onena.

### Lakuntzan kadeteen XXV. Lakuntzako Saria-Sakana Fundizioa Sari Nagusia

Urte luzez Lakuntzako festetan afizionatuen lasterketa jokatu izan da. Baina halako proba bat antolatzeak sekulako aurrekontua du

eta azkeneko urteetan ezin izan da proba antolatu, arrazoi ekonomikoengatik. Hala ere, txirrindularitza sustatzen jarraitu nahi du Lakuntzak eta afizionatuen probaren ordezkari, bigarren urtez jarraian, kadeteen mailako lasterketa jokatu da festetan. Zehazki, agorriaren 25ean jokatuko da proba, asteartean, 17:00etan, XXV. Lakuntzako Saria-Sakana Fundizioa Sari Nagusia izango dena. 60 km-ko proba izango da, Lakuntzan hasi eta despedituko dena eta Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria izango dena. Lakuntza, Arruazu, Arbizu eta Etxarri Aranatz artean burutuko da proba, eta Etxarritik behin Katerainoko bidegurutza igoko dira, Arbizutik jaisteko.



Rodriguez podiumean.

## Rural Kutxako Cristian Rodriguezek irabazi du Leongo Itzulia

Txirrindulari andaluziarrak denboraldiko 18. garaipena eman dio Rural Kutxari

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Cristian Rodriguezek Leongo Itzuliko 23. urteazpiko proba irabazi zuen larunbatean, 5 etapako proba gogorra. Andaluziarrak denboraldiko 18. garaipena eman dio talde sakandarrari. Azkeneko etaparen, 15 km-ko erlojupekoan, lidergoari eusteko arazorik ez zuen izan Rodriguezek.

"Poz handia ematen digu honek. Orain arte itzuli eta ongi genbiltzan, baina itzuli bat irabaztea falta zitzaigun. Bidasoan gertu egon ginen eta azkenik Leonen lortu dugu. Talde guztiak bikain egonda. Cristianek sailkapen orokorra eta etapa bat irabazi ditu, Carlosek beste bat eta gaitzoko taldekideak ere primeran aritu dira" adierazi du Rural Kutxako zuzendari Alberto Mazkianan altsasuarrak.



## Zia eta Etxeberria Nafarroako selekzioarekin

Ostiraletik igandera bitartean Txuma Nazioarteko Hiru Egunak jokatu dira Erandion, Berangon eta Leioan, kadete mailako proba garrantzitsua. Nafarroako selekzioarekin aritu ziren Burundako Quesos Albeniz taldeko Hodei Zia Lopez eta Josu Etxeberria Azpilikueta eta lan ona egin zuten.

Bestalde, kadeteek Azpeitian

XXV. San Inazio Saria jokatu zuten igandean. Ailetz Lasa laugarrena iritsi zen helmugara, Oihan Vinaigre 31.a eta Josu Jaka 54.a.

Kategoria txikiko txirrindulariek, aldiz, eskola mailako proba izan zuten igandean Olaztin. Ginkana eta lasterketa probak burutu zituzten eta han izan ziren Aralar eta Burunda Txirrindulari Klubetako txirrindulariak.

## Arrieta eta Erbitiren Movistar Tourreko talderik onena



Skyko Chris Froomek irabazitako Tourrean 1:12ra sailkatu zen Movistarreko Nairo Quintana eta hirugarrena talde bereko Alejandro Valverde, 5:25era. Movistarreko Hiriberriko Imanol Erbiti 115.a sailkatu zen 3:47:14ra. Eusebio Unzueta eta Jose Luis Arrieta uhartearrak zuzentzen duten Movistar Team izan zen Tourreko talderik onena. Taldekide guztiak igo ziren oholtzara.

Agentzia Bakarra

**Allianz** Aseguruak

HNOS. SAYAS MAZQUIARAN S.L.

etxarri@sayasmaz.com  
948 111 411  
Larrañeta 19 behea  
ETXARRI ARANATZ

MENDIGAIN URDELAZPROAK

948 576 286  
Mendigain kalea, 5  
LAKUNTZA

**MAPFRE**

ASEGURUAK

Erkuden Urteaga San Roman  
Etxarri Aranazko ordezkaria  
Erregistro zbk. 8572

948 461 055  
eurteag@mapfre.com  
Kale Nagusia 4  
ETXARRI ARANATZ

**MARINELETXE**  
HARATEGIA

Ongi pasa festetan!

948 46 19 80  
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6  
Etxarri Aranatz



## Kiroldesia

## Goi mailako kirolari sakandarrak ditugu

Nafarroako Gobernuak onartutako zerrendan Sakanako 13 kirolari, entrenatzaile bat eta epaile bat daude

Nafarroako Kiroloren eta gazteriarren Institutuko zuzendari kudeatzaileak Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako kirolarien, goi mailako entrenatzaile edo teknikarien eta goi mailako epaile edo arbitroen behin betiko zerrenda onetsi du, aipatu kirolari, teknikari eta epaileen kirol merezimenduak eta merezimendu teknikoak aztertu ondoren. Zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean publikatu da.

Zerrenda honen arabera Nafarroan goi mailako 552 kirolari, entrenatzaile eta epaile daude (473 kirolari, 53 entrenatzaile eta 26 epaile). Horietatik 15 dira sakandarrak, 13 kirolari, teknikari bat eta epaile bat. Kirolariek goi mailako izendapen hori hurrengo 3 urteetan mantenduko dute, eta kirolari olinpikoen kasuan 5 urtetara luzatuko da izendapena. Epaileek, aldiz, 2 urtetarako mantenduko dute eta teknikariek eurek zuzentzen duten kirolariek duten izendapenaren erdia.

## Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile sakandarrak

Goi mailako kirolari sakandarrak Yanira Aristorena (pala), Naiara Diez Fernandez (saskibaloia), Imanol Erbiti Ollo (txirrindularitza), Ioseba Fernandez Fernandez (irristaketa), Jose Luis Iriarte Larunbe (arku jaurtiketa), June Kintana Larraza (disco jaurtitzaila), Asier Llamas Etxeberria (areto futbola), Roberto Martil Fernandez (are-

to futbola), Hodei Mazkieran Uria (pista txirrindularitza), Floren Nazabal Leitza (aizkora), Alberto Ongay Tere (pilota), Arkaitz Peñas Irigoien (pilota) eta Daniel Saldise Martinikorena (areto futbola). **Goi mailako entrenatzaile edo teknikari sakandarrak** Imanol Arregi Sarasa (areto futbola). **Goi Mailako epaile edo arbitro sakandarrak** Monica Zubillaga Andueza (triatloia).

## Kiroldesia



Mota guztietako probei egin beharko die aurre gazteek.

## Altsasu Xtrem 2.0 badator!

Agorriaren 15ean jokatu da abendura proba

Altsasuko Gazte Asanbladak aurreko urtean, estreineko, Altsasu Xtrem abentura proba antolatu zuen. Aarrakastatsua izan zenez, aurten bigarren edizioa prestatu dute. Altsasu Xtremen altxorra bilatzeko mota guztietako abentura probak gauditu beharko dituzte.

Aurreko urtean 13 pertonez osatutako 4 talde lehiatu ziren. Proba ezberdinak osatu zituzten: tetris erraldoia, fardo igoera, oztopo zirkuitua, geocatchinga... Txapelduinak Baikolarako bareak izan ziren. Altsasu Xtreme 2.0 agorriaren

15ean jokatu da. Goizeko 10:00etan taldeen egituraketa eta antolaketa egingo dute Foru Plazan, eta auzatea izanen da. Ondoren, 11:30ean hasiko da proba, egun guztian barna luzatuko dena. Gauean afaria egonen da eta irabazleek euren saria jasoko dute.

Izena ematea zabalik

16 urtetik gorako neska-mutikoei eman dezakete izena altsasuxtreme2.0@gmail.com e-postara mezua bidalita, lehenbailehen. Parte-hartzaile bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu (hamaiketako, bazkaria eta afaria barne).

## Kayak



## 74 sakandar kayak gainean

Irurtzango igerilekuak hartu zuen kayak jardunaldia

Mank-eko kirol zerbitzuak udako kanpainaren barruan asteartean Irurtzunen antolatutako kayak jardunaldiak sakandarren interesa piztu zuen. Nabarmenezkoa da Sakana osoko 74 haur eta gaztek

parte hartu zutela. Jardunaldia borobila izan zela azpimarratu du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. "Giroa bikaina izan zen Irurtzunen, ongi pasatu genuen. Ane, Aitor, Iratxe eta Anne monitoreek emandako laguntza eskertzekoa da" adirazi zuen.

## Waterpolo

## Waterpolo jardunaldi ederra

Ostegunean ospatu zen, Lakuntzan

Mank-eko Kirol Zerbitzuak, Lakuntzako Udalaren laguntzarekin, waterpolo jardunaldia antolatuz ostegunean Lakuntzako igerilekuan. Izena eman zuten

50 neska-mutikoei taldeak antolatu eta waterpolo partidak jokatu zituzten. Primerako giroa izan zen. Azken partidaren monitoreak eta gurasoak neska-mutiko gaztearen kontra aritu ziren.



Giro bikaina izan zen waterpolo jardunaldian.

## Piraguismoa

## Piraguismoan murgiltzen

14 pertonek hartu zuten parte

Mank-ek larunbatean Izurdiagako ibaian piraguismoa lantzeko aukera eskaini zuen, udarako prestatutako jardueren barruan. 14 pertonek eman zuten izena eta guztiak

Jon Goñi monitorearen agindutara murgildu ziren Izurdiagako ibaian piraguarekin. Bi txanda antolatu ziren. Lehenengoan familiarituz ziren eta bigarrenegazte koadrilak.



Piraguak prestatzen.



## Nonerabili

## IZARA

ALTSASU

50€ baino gehiagoko erosketetan % 5eko deskontu zuzena, enkarguetan izan ezik.

## TXIKITXO

ALTSASU

60€tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

## NAMASTE YOGA

ALTSASU

Bi yoga klase doan.

## TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU

60€ko erosketatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

## VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI

30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

## ALDASORO HARATEGIA

ALTSASU

30€ko erosketatik batengatik etxeko produktua opari.

## ALFA INMOBILIARIA

ALTSASU

Etxe edo pisu baten erosketatik 100€ko txeketa opari.

## KIXKUR ESTETIKA ZENTROA

ZIORDI

30€ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

## IORTIA HORTZ KLINIKA

ALTSASU

%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

## ULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

ALTSASU

%5eko deskontua 50€tik gorako erosketetan.





**GRUPO TANATORIO**  
**IRACHE**  
 TANATORIO TALDEA

**948 197 070**

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza [www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)

  
**Martin Lazkano Azpiroz**

Une hauetan gure ondoan egon zareten guztioi eskerrik asko, bihotz-bihotzez.

**Lazkano etxeokak**

Lakuntzan.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin**  
**948 564 275 telefonora**

**Oroigarriak**



**GUAIXE KOMUNIKAZIOA**  
**948 564 275**

  
 GRUPO  
**Funeraria VASCONGADA**  
 Ehorzketak  
 TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

# guaixe.iragarkilaburrak.com

- |                  |               |                 |
|------------------|---------------|-----------------|
| 1 HIGIEZINAK     | 4 DENETARIK   | 7 AISIA/KIROLA  |
| 2 TEKNOLOGIA     | 5 IBILGAILUAK | 8 FAMILIA/ETXEA |
| 3 LANA/NEGOZIOAK | 6 HARREMANAK  |                 |

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).  
 Argazki bakoitzeko 3€.  
 Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
 Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en.

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
 Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

## Erosi

**Trikitixa alokatu edo erosiko nuke.** Aurtun klaseak jasotzen hasiko den ume batentzako. Deitu 647 37 02 41.

## Higiezinak

**LOKALAK**

### ERRENTAN EMAN

Dorrauko jaietako bi taberna alokatzen dira. Jaiak abuztuaren 13tik 16ra izanen dira. Interesatuak dei dezala 628 85 58 27 edo 637 33 13 47 telefonoz zuzainaren bidez. 30a baino lehen.

**Ihabarko Denon Kabia elkarte.** festetan alokatzen da. Abuztuaren 28tik 30era. Interesatuak hots egin dezatela abuztuaren 14a baino lehen telefono honetara: 670 95 98 75.

## Oparitakoak

**Katakumeak.** Oparitzen ditugu. Tel: 661 52 04 04 - 948 46 72 48

## Lehiaketa

**Haurrendako antzerki testu lehiaketa.** Nafarroako Antzerki Eskolak antolatuta eta CAN FUNDAZIOAK lagundua da. Plika sistema erabiliz, lanak agoriraren 31ra arte aurkeztu daitezke Nafarroako Antzerki Eskolan. Informazio gehiago [www.laescueladetatro.com](http://www.laescueladetatro.com)

**Argazki lehiaketa.** Nafarroako Landa Turismoko Federazioak Igo Argazki Lehiaketa antolatzen du Nafarroa bisitatzen dutenei zuzenduta. Argazkiak e-mail bidez bidali daitezke [info@turismoruralnavarra.com](mailto:info@turismoruralnavarra.com) helbidera edo zuzenean [www.turismoruralnavarra.com](http://www.turismoruralnavarra.com) web orrialdera igo. Azken horretan dago lehiaketari buruzko informazio guztia.

## Oharrak

**Tartalaria espetxera ez joateko.** AHTren kon-

trako tartalari bati Espainiako auzitegi Nazionalak 14.400 euro eskatzen dizkio, edo bestela espetxera bidaliko du. Sostengu ekonomiko: 3035.0068.08.0680058591 Basagure taldea (Laboral Kutxa) kontu korrantean.

**Odol-emaileak.** Irailaren 3an arratsaldean, Irurtzunen.

**Zozketa.** Saharako haurrak ekartzeko laguntza zenbakien zozketan, hauek ateratu dira: 0833 -1130 - 3153 eta 2824.

**Bertso udalekuak.** Euskal Herriko osoko haur eta gazteek parte har dezakete bertso-udalekuean. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsoszale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren ondorengo. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943- 32 22 94.

**3MBk kontu korrantea zabaldu du.** Rural

kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com) edo [amigososefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigososefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure beleixeguaixe txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda.** Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garga-ardoa, lekaleak, ozpina... Informazio gehiago: 656

711 130 (Gorka).

**Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoa.

## Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua

**Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Asteleheneran Etxarri Aranatzan, asteartean Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigrazio@sakanamank.com](mailto:immigrazio@sakanamank.com) posta elektronikoa.

## Gazteendako sexualitate aholkularitza.

Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net) helbidea). Adina: 12-30 urte.

**Izan zaituz Mintzakide!** Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informazio gehiago: 607 624 392 telefonoa, [sakana\\_mintza@aek.org](mailto:sakana_mintza@aek.org) e-posta edo

## JAIOTZAK

• **Aimar Queirós Martin,** garilaren 21ean Altsasun.

## HERIOTZAK

• **Francisca Irujo Aizkorbe,** uztailaren 20an Arruazun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

[sakanamintza.blogspot.com](http://sakanamintza.blogspot.com) ataria.

**Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu.** Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: [www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com) web gunean.

**Iparraldeko Ikastolak laguntzeko.** Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

**Garraio laguntzarako diru bilketa.** Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

**Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa.** Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izateko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo [berdintasuna@altsasu.net](mailto:berdintasuna@altsasu.net)).



# kultura >>

## Inglaterra abesbatzaren musika ezagutzeko aukera aparta

Gaur, 19:30ean, Urdiango elizan

**E**rkudengo Ama abesbatzari joan den udan Inglaterra hegoaldera egindako bisita bueltatuko dio Amici abesbatzak. Atzodanik daude Euskal Herrian, Donostian ostatu hartuta. Han bihar emanen dute emanaldia, gaur, berriz Urdiainen. Kontzertuko egitaraua estilo eta garai ezberdinetako Inglaterrako abesbatza-musikako obrek osatu dute; herri kantua eta espiritualen moldaketa modernoak, XVII. mendeko kantua eta George Shearing jazz konpositoreak musikatu dituen Shakespeare-ren testuak. Erkudengo Amarekin batera kantu pare bat ere emanen dute.

Amici abesbatzak 20 urteko ibilbidea du. Eta bitarte horretan



garai eta estilo ezberdinak jorratu dituzte: Bach-en koralak, Handel eta Brahmsen obrak bakarlarri eta orkestra entzutetsuen laguntzaz, herri kantua, operako koroak, jazz edo Broadwayko musikalen zatiak. Andrew Trehwellak zuzentzen du 30 bat ahots misto-

ko koralak. Tenorea eta abesbatzako piano eta organo jolea. Tauntoneko eskola garrantzitsu bateko zuzendaria eta kalitate handia duen hango kapera-koroa zuzentzen du. Bere eskutik, Amici abesbatzak konpositore eta obra berri asko lantzeko aukera izan du. Sor-

terriaz aparte Italian, Belgikan, Frantzia eta AEBn aritu da Amici abesbatza.

### Bisita bueltan

Erkudengo Ama abesbatzan kantuan ari den Mary Davis ingelesa bitartekari zela Altsasuko koralak joan den urteko agorrilean irlara bidaiatu egin zuen. Zazpi egunetan euskal doinuez beteriko hiru emanaldi eskaini zituen Erkudengo Amak. Tauntongo abesbatzak, han ari dira Davisen gurasoak, aurtan bueltatu du bisita. Eta trukaketaren sustatzailea Urdiainen bizi denez, koralean Inglaterrako kontzertua Burundako herrian egitea erabaki dute. Amicokoe gaur, gainera, Sakana ezagutzeko baliatuko dute. Eguerdian Arbizun bazkaldu eta herria bera bisitatuko dute.

## Irañeta, bertsolaritzaren baratza

**P**asa den asteazkenean despeditu ziren Irañetako bertsodalekuak. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatutako jarduerak 12 eta 14 urte bitarteko 36 gazte elkartu zituen Juntziren aterpetxean. Hilaren 13tik han egon ziren gazteek mendi ibilaldi, Uharteko igerilekuan eta Urruntzurre errekan bainua, joko eta jolasak, antzerkia eta beste izan zituzten.

Ezin falta bertsolaritzarekin, ahoz kotasanarekin eta hezkidetzarekin uztartutako jarduerak. Hala, hilaren 16an, Nerea Ibarzabal eta Eneko Lazkoz bertsolarien bisita jaso zuten. Asto gainean iritsi ziren bertso-afarira. Gaztetxoak gaiak jartzera eta bertsotan aritzera animatu ziren. Udalekuan Oskar Estangaren bisita ere hartu zuten. Harekin kantagintza landu zuten. Eurek osatutako doinuek bertso-udaleku guztietakoekin batera diskoan jasoko dituzte.

## bazterretik

Juan Karlos Lopez-Mugartza

### Aragoi, Sardinia eta euskara

Aragoi aldean izan naiz egun hauetan, Uesca hirian (Uesca, fablez. Huesca, aldiz, gaztelaniaz), hantxe kongresu interesgarri bat egin baita desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen inguruan. Kongresuaren izena bera aragoieraz idatzita zegoen: XXIV Congreso de Lenguas e Culturas Europeyas Menazatas.

Sakandarra naiz amaren partetik, baina Aragoira joaten naizen bakoitzean nire arima aragoiarra esnaten zait beti, aitaren aldetik hangoa ere bainaiz. Bestalde, hizkun-

tza txiki bateko hiztuna naizenez gero, hizkuntza txikiak maite ditut, Aragoiko Pirinioan oraindik bizirik dirauen hori bezala.

Kongresua Europako Hizkuntza eta Kultura Mehatxatuen Elkarteak (frantsesez ALCEM) antolatu du Aragoiko O Consello d'a Fabla-ren eskutik. Hauek gure "Euskaltzaindia"-ren antzekoak dira, hantxe akademiari consello eta aragoierari fabla deitzen baitiete.

Kongresuan irakasle eta aditu ospetsuak egon dira. Haien artean Suitzako Michael Metzeltin filologo eta hizkuntzalaria, Sardinia Diegu Corraire irakasle, itzultzaile eta toponimian aditua, Eskoziako Mar-

saili McLeod Gaelikoan eta Hizkuntz Zeltikoetan doktorea, Aragoiko Francho Nagore hizkuntzalaria, irakaslea eta idazlea, Chusé Inazio Nabarro Consello-ko lehendakaria eta olerkaria, eta, besteak beste, Euskal Herriko Patxi Baztarrika hizkuntzalaria eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburordea.

Ospe handiko izenak izan badira, izen haien ekarpenak ere ez dira txikiak izan. Metzeltin suitzarra, MacLeod eskoziarra, Corraire sardoa eta Baztarrika euskalduna bat etorri dira esatean hizkuntzak ez direla komunikatzeko tresna hutsak, beste zerbait gehiago ere badire-

la: norbanako eta herri bezala, gure nortasunaren eraikitzaile nagusiak. Erkidego baten partaide eta kide egiten gaituzte, eta komunitate horren memoriaren, historiaren eta altxor inmaterialaren jabe ere bai. Gure fantasiak, gure errealitatea, gure nahiak, gure oroitzapenak, gure barruan dagoen guztia azaleratzeko baliagarriak dira. Corraire irakasleak hitzaldian aipatu zuenez, bere herriko lagun askok herria biziki maite dutela esan arren, ez dutesardoa ikasteko edota erabiltzeko beharrik ikusten, alegia, sardiniarrak izan daitezkeela, berdin-berdin, italiaraz mintzatzen. Eta zenbaitetan esaten

diote: "Irlandan independentzia lortu zuten arren, inork gutxi egin du gaelikoz... hizkuntza ez da beharrezkoa herria maitatzeko." Corrairek ez du hala uste. Berarentzat, irlandar anglofono horiek kolonizatuta daude oraindik ere. Ezin dute beren arbasoen mezua ulertu eta ingelesena dute buruan. Sardiniera gabe, Sardinia maita daiteke arrotz baten moduan, burmuinak eta bihotzak gutxiesten gaituztenen modura pentsatzen eta sentitzen ohitu direlako. Oskorrik Xabier Amurizaren hitzez kantatu zuen antzera, ez al daki-te sardiniera dela sardiniar egiten dituenak?

www.pescaderiamariaeugenia.com  
Arratsalde zabalik

**mariaeugenia**  
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

2x1

**TXIKITXO**  
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08  
Ferialleku 2 • ALTSASU

**sorgiñak**  
taberna

**LAKUNTZA**  
948 576 357

**LARRAZA ARDOAK**  
Tel.: 948 460 014

Zugarreta 2  
Etxarri-Aranatz



## 11 urteko ibilaldiari omenaldia



**Arakilgo abesbatza ibarraren egunean omendua izan zen**

Udalak eta herritarrek abesbatzak Arakilgo kulturari egiten dion ekarpena aitortu nahi izan zuen Arakilgo egunean. Aitortza, aurreko eta oroi-garri modura jaso zuten koralak, eta kantu batekin eskertu zuen. Haren koordinatzaile M<sup>a</sup> Angeles Zabalak azaldu digunez, Arakilgo abesbatza 2004an sortu zen. Urte pare bat lehenago zazpi bat egitarretar abesbatzarena mugitzen hasi ziren. Irurtzungo abesbatzakoiei haien asmoen berri eman eta haien laguntzaz hasi ziren entsetatzen. Abesbatza handiagoa sortu zitekeela pentsatu zuten eta

hala sortu zen 2004an Arakilgo abesbatza. Ibarreko jendea bilera batera deitu zuten eta koraleko kide kopurua hazi zen. Ibarreko ia herri guztietako abeslariak osatzen dute koroa.

Arakildarrekin batera lau uhartear ere aritzen dira kantuan. Azken horien artean daude organoa jotzen duena, bi abeslari eta zuzendaria: Joaquin M<sup>a</sup> Uharte. Gaur egun 25 kide ditu abesbatzak, nahiz eta 30 ere izan diren. Haietako asko helduak dira. Uhartek joan den urtean zendu zen Jose Luis Ansari hartu dio lekukoa zuzendaritzan. Abesbatzan bertan opatu zuten ordezkoa, Uhartek aurretik bere herriko elizako abesbatza zuzentzen eskarmen-

tua baitzuen.

Arakilgo Udalaren diru-laguntza jasotzen du abesbatzak. Zabalak esan digunez, “horren truke koralak Oskia, San Isidro, San Migel eta Santiago erromerietan eta ibarrean izatzen diren hiletak elizkizun guztietan kantatzeko konpromisoa hartu genuen”. Haien errepertorioa, gehien bat, eliz musikak osatzen du. Hura prestatzeko Egitarretako kontzeju-etxean elkartzten dira, ostegunero. Hain zuzen, ostegun jakin zuten Arakilgo egunean omendua izanen zirela eta “sorpresa ederra” hartu zuten. Entsegu tokian jarriko dute jasotako oroigarria. Baina irailera bitartean merezitako atsedena hartuko dute.

## Guaixek udako argazki onenak sarituko ditu



**Udako oporren lehiaketarako lanak www.guaixe.eus web guneraren bidez aurkezteko aukera izanen da gaurtik irailaren 18ra arte**

Sakanan bertan edo munduan barna udan oporretan joaten diren sakandarrek argazki kamara edo telefono mugikorra aldean eramaten dute. Haien euren oporraldiaren testigantza jaso eta gorde egiten dute. Sakandarren oporren lekukotza jaso eta euskaraz harremanetan jartzeko topagune digitala eskaini nahi du Guaixek 2015eko Sakanako Udako Argazki Lehiaketa antolatuz. Izan ere, www.guaixe.eus webgunean

lehiaketarako propio sortutako atala izanen baita. Hara igo behar duzute parte-hartzaileek euren argazkiak.

Hala sakandarren uda nolakoa den irudikatuko dugu: monumentu, eraikin, paisaia, lagun arteko giroa, hondartza, mendia, herrietako festa eta erromeriak... Denetariko argazkiak aurkeztu daitezke lehiaketara. Guztiak web orrian izanen den argazki galeria batean ikusgai izanen dira.

Oinarriak

www.guaixe.eus

## Kabaretak ateak zabalduko ditu Ihabarren



**Agorrilaren 22an, larunbatean, 22:00etan eta agorrilaren 23an, igandean, 21:30ean beheko iturriaren inguruan ihabardarrek antzezlanak plazaratuko dute**

Festen aurreko asteburuan, aurten zortzigarren aldiz, Ihabarko antzerki tailerra oholtzara aterako da. Herrian bertan. Aurten Ihabar Kabaret lana antzeztuko dute. Jon Barbarin Lisarri zuzendariak azaldu digunez, “guk sortutako istorio bat da. Gidoi txiki bat egin dugu eta haren baitan esketx bil-

duma bat dago”. Barbarinek aurreratu digunez, zeremonia maisua izanen da eta hark ematen die bide kabaretean gertatuko diren esketxei.

Guztiendako antzezlanak da Ihabar Kabaret. Barbarinek aurreratu digu koreografia eta musika asko izanen duela: “obrak testu gutxi eta gorputz lanketa gehiago du. Azken horri emandiot garrantzia aurten”. Beraz, aurreko zazpi obrek alderatuta ezberdina da Ihabarko antzerki tailerra prestatzen ari den obra; “sorkuntza gehiago

du”. Eszenografiari dagokionez, kabareta gogoraziko duen ate moduko bat eta murala izanen dute. Sorpresaren bat ematen ahalginduko direla ere esan digu zuzendariak.

Ihabarko beheko iturriaren inguruan erakutsiko da antzezlanak. Han bertan ari dira entsetatzen garilaz geroztik; astelehen eta asteazkeneko, bi orduz. Barbarinen esanetara 14 antzezle ari dira (6 gizon eta 8 emakume), bi uhartear ez beste guztiak ihabardarrak.

**Txartel**  
freskagarrria

Gozatu txartelaren abantailez

Uztailaren 30eko **SARITUA:**  
**Jose Mari Morcillo**

Oporretatik bueltan...  
**sorpresa gehiago!**



## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 94%	euria: 43%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 13%	euria: 13%	euria: 15%
Min: 11 Max: 18	Min: 11 Max: 21	Min: 11 Max: 29	Min: 15 Max: 28	Min: 14 Max: 27	Min: 16 Max: 28	Min: 15 Max: 26

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	29	9.5	15.9
Etxarri A.	29.79	7.9	2.1
Altsasu	28.5	8.5	18.7
Aralar	22	7.4	13.8
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
31	7	14	22

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide abantailak

# 50€ =

GUAIXE ASTEKARIA ostiralero buzoian

Errenta aitortpenean  
**%25eko**  
desgrabazioa  
(12,50€)

**%5eko**  
deskontua  
diseinu zerbitzuan

Eskeletan **%10eko**  
deskontua

Zorion agurretan  
**deskontua**

Bazkide  
**zozketak**

Komertzio batzuetan  
**deskontuak eta**  
abantailak

# >> 11

## galdera

Javi Mozo

Unanuko Kontzejuko presidentea, San Donati egunaz

Testua: Maider Betelu Ganboa



## Logotipoen sorkuntza eta kanpainetarako hainbat euskarriren garapena

GUAIXE

KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

kamisetak,  
lonak...

**1. Agorrilaren 9an San Donati eguna antolatu duzue Unanun. Donati?**  
 Bai, guk San Donati deitzen dio-gu Beriaingo ermitari. Pertsonai Donato, baina ermitari Donati.

**2. San Donato santuaren eguna abuztuaren 7an izaten da eta hurrengo igandean ospatzen da San Donatoko erromeria, uhartearrek antolatuta, ez?**  
 Uhartearrek antolatzen dute igorera: beraiek eramaten dute auzatean banatu beharrekoa, meza antolatzen dute eta beste. Baina Unanutik jende asko igotzen da eta pentsatu genuen herriari bizitasuna emateko zerbait antolatzea egun horretan. Jende asko igotzen da Unanutik eta herrian tabernarik ez dagoenez pentsatu genuen elkarte zabalik izatea jendeak jaisterakoan zerbait zabalik izan dezan. Eta gero herri bazkaria egitea. Aurreko urtean egin genuen lehenengoz San Donati eguna.

**3. Eta zer moduz joan zen?**  
 Herri bazkaria n 69 pertsona inguru bildu ginen, gehienak unanurak, baina baita etxarriar batzuk, dorrobar batzuk eta beste. Gero jai giroa egon zen elkartearen. Oso ongi pasatu genuen.

**4. Nork antolatzen du festa? Kontzejuko edo gazteek?**  
 Guztiak. Izan ere, Kontzejuko gazteak gaude. 2014an ni ez nintzen presidente eta festa antolatzen lagundu zidatenak ez ziren kontzejuko kideak, baina aurreko urtean akaso gehiago antolatu dugu kontzejutik.

**5. Agorrilaren 9an zein ordutan aterako zarete Beriaineran?**

Meza 11:00etan izaten da. Batzuk mezarako igotzen dira. Jendea unanuro ateratzen da Unanutik: batzuk goizeko zazpitan, beste batzuk zortzietan, bederatzietan... denetatik. Mendian asko ibiltzen direnak ordu batean iristen dira gora eta bestela, ordu eta erdi bi orduen bueltan. Goian meza ondoan auzatea izaten da, Uharte Arakilgo Udalak eskainia.

**6. Jende asko igotzen da egun horretan San Donatira?**  
 Bai, sakandar asko eta baita kanpokoak ere. Batzuk Uharteko bideetik igotzen dira, beste batzuk Arruazutik, Goñitik... toki gutzietatik.

**7. Kotxez igo daiteke?**  
 Bai, egun horretan autoek libre dute menditik pasatzea. Unanutik, Lizarragatik, Goñitik... aukera dago kotxez joateko. Jende adindua kotxez joaten da eta jende asko ere motorrekin doa.

**8. Aurtengo San Donati egunerako zenbat pertsona bilduko zarete bazkarian?**  
 Igandera arte apuntatu daiteke bazkarian, telefonoz (650 403 106), eta orduan jakingo dugu. Katering enpresa bat etortzen da. Aurreko sarrerako platerak (entsalada mistoa, errusiar entsalada, zainzuriak mahonesarekin eta urdaiazpikoa) eta paella mistoa izango ditugu, postrearekin (25 euro). Aurreko haurren dako menua ere izanen da. Beraz,

mundu guztia etor daiteke.

**9. Egun osoan elkarte zabalik egongo da?**  
 Bai. Bazkaria frontoian izanen da, eta bazkal ondoren DJ batek jarririkodumusika elkartearen, Josu Garate lakuntzarrak. Aurreko urtean gaueko hamarrak pasatxo arte luzatu zen festa. Denetatik jartzen du, festetan ere egon zen eta oso gustura. Kontzejukoak eta elkarteak elkartearen zerbitzatzen ariko gara. Goizean gora igoko gara eta meza baino lehen jaitsiko gara, beheko guztia prestatzeko.

**10. Unanuk Beriainekiko lotura handia du, ezta?**  
 Bai, beti. Hemen ardiekin eta ganaduekin bizi izan da jendea. Eta udan beti mendira, ardiak eramatera. Horretaz gain, mendizaleen joan-etorria asko nabaritzen da Unanun, udan bereziki. Gehienbat asteburutan baina baita astez ere.

**11. Sakandarrak San Donati egunean parte hartzera animatuko ditugu?**  
 Etorri nahi duen jende guztia ongi etorria izan dadila. Herri bazkaria etortzeko apuntatu behar da, baina bestela arratsaldean buelta bat ematera edonon etorri daiteke, giroaz gozatzera. Gainera, asteburu horretan Etxarri Aranzako festak bukatu berri ez dago beste festarik; libre dago. Beraz, ongi etorri guztiak.